

Kulturaren plaza, euskararen arnasmune

49. Durangoko Azokak ateak zabaltu ditu. Abenduaren 5etik 8ra bitartean euskal kulturak emandako uzta ezagutzeko aukera eskainiko dute azoka osatzen duten bederatzi guneeek. Aurtien Okzitania da kultura gonbidatua, eta kultura horri lotutako hainbat ekintza antolatu dituzte. Larunbatean Argizaiola saria jasoko duen Anuntxi Arana antropologoa ere azokako protagonistetako bat izango da.



Txelu Angoitia (Gerediaga Elkarteak).



Zirarmendieta S.Coop.

Faustegoienan

Itxaroten zenbiltzan aukera, hemen dago jada!

2 L 137.900 €-tik hasita

3 L 158.900 €-tik hasita

Babes Ofizialeko 42 etxebizitza
"jabetza erregimenean"

2 eta 3 logela, garajea eta trastelekua barne.
Babes Ofizialeko baldintzak betetzen badituzu,
aukeratu etxebizitza zerrendarik eta zozketarik gabe.

DURANGO

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:

 **arrasate**
etxebizitza kooperatiben kudeaketa
gestión de cooperativas de vivienda


Landako, 5 - 48200 Durango

94 679 03 81

www.arrasate-ekozi.com

FINANTZIAZIOA:





ATXARTE
MENDIKO DENDA

ESKALADA • BOULDER • MENDIA • TRAIL RUNNING

Lafuma • chorko • LURBEL • PETZL


T. 946 550 455
Santa Ana plaza
DURANGO
Atxartemendikodenda@gmail.com

Anboto **TABERNA JATETXEA**

- eguneko menuak
- menu bereziak
- karta
- era guztietako pintxoak
- razioak ...

aurrekontuak kontsultatu
konpromisorik gabe!

Goienkale kalea, 14 - 48200 DURANGO ☎ 946 811 020



ALCONADA AUTOBUSAK



Joan-etorriak sagardotegietara, ezteguetara, Errioxara, elurretara, leku turistikoetara...

Profesionalak gara lantegietarako, ikastegietarako eta kirol taldeen partiduetarako joan-etorrietan.

Beti preziorik onena!
Kontsultatu, eta aurrekontua egingo dizugu.

www.autobusesalconada.com

Tel.: 943 172 415 - 610 283 939 • busalconada@gmail.com



OLA
JAUREGI

Dastatu gure menu bereziak!!

Kurutziaga 52 Durango

94 620 08 64

ARETO NAGUSIKO EGITARAUA

ABENDUAK 5, BARIKUA
10:30 ‘Ametsetik paperera (eta pantailara)’. Fernando Morillo. Ikasleei zuzendutako bi saio.
13:30 ‘Lanbide Heziketa euskaraz’. Kepa Altube Eraña.
14:00 ‘Elkarrekin bakean bizi gaur-hemen. Vivir juntos en paz hoy-aquí’. Jose M. Sefien eta Patxi Meabe.
14:30 ‘Sarako etxeak. Maisons de Sare’. Henri Errandonea.
15:00 ‘Biolentzia politikoaren memoriak’. Emilio Lopez Adan.
15:30 ‘Emakumeak eta euskal literatura: noiztik, nora, nola’. Aurkezpena, tailerra eta mahai ingurua. Josune Muñoz, Jasone Osoro eta Gema Lasarte.
17:30 ‘Museoen argitalpenak’. Mahai ingurua. Moderatzailea: Asier Madarieta.
18:30 Inaugurazio ekitaldia. Herrialde gonbidatua: Okzitania. ‘L’Occitanie, plus qu’un pays, un horizon cosmopolite’ (Okzitania herrialde batetik haratago, etorkizun kosmopolita). Sèrgi Javaloyès.
ABENDUAK 6, ZAPATUA
12:00 ‘Okzitania eta euskararen arteko harremanak’. Solasaldia. Bernat Arrous-Bordes, Joaquin Gorrotxategi eta Xarles Videgain.
14:30 ‘Haria 36: Gerla Handia Iparraldean’. Eneko Bidegain, Luzien Etxezarreta, Asisko Urmeneta, Mitxel Mendiboure eta Angel Rekalde.
15:00 ‘Zamorako landan’. Jon Etxabe eta Intxorta 1937 kultur elkarteak.
15:30 ‘Aljeriaz’. Jean Louis Davant.
16:00 ‘Euskal Herriko nortasun grafiko instituzionalaren eskuliburuak’. Mertxe Aizpurua eta Xabier Gorostiaga.

16:30 ‘131 AZA, palindromotarako liburua’. Markos Gimeno.
17:00 ‘Mañukorta bertsonajea’. Xabier Amuriza, BBE eta Lanku.
19:00 ‘Euskal Herriko Musika Bulegoa’. Proiektuaren aurkezpena. MEE, Kulturalive, MIE elkarteak eta Musikari.
19:30 ‘Badok euskal musikaren ataria’. Martxelo Otamendi, Jon Eskisabel eta Pello Urzelai.
GOGOETAREN PLAZA
Nola kanta, hizkuntza hautua. Miren Rubio eta Iñigo Astiz kazetariak gidatua.
11:00 Elkarriketa: Fermin Muguruza.
13:00 Solasaldia: Anari Alberdi eta Bernardo Atxaga.
17:30 Mahai ingurua: ‘Hizkuntzaren hautua euskal kulturgintzan’. Joxe Mari Sors, Lorea Agirre eta Mikel Martinez.
ABENDUAK 7, DOMEKA
14:30 ‘La bestia que bebe de las huellas’. Fernando Palazuelos eta Rober Garay.
15:00 ‘Octubre de 1934 en Euskal Herria’. Juan Ramon Garai, Jesús Gutiérrez eta Josu Chueca.
15:25 ‘Diario de un gudari en el frente de Euskadi’. Intxorta 1937 kultur elkarteak eta Antonie Urkijo.
15:45 ‘Euskal Herriko Unibertsitateko ikasliburuak’. Jon Zarate eta Jesus Mari Makazaga.
16:10 ‘Euskararen inguruko Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpenak’. Jon Zarate, Juan Garzia eta Juan Kruz Igerabide.
16:30 ‘Bittor Kapanaga. Euskera Erro eta gara: lan guztiak I’. Jose Luis Lizundia, Antton Mari Aldekoa-Otalora eta Juan Martin Elexpuru.
19:30 ‘Euskal Herriaren ibilbide orria.’ Urtzi Iltza.

GOGOETAREN PLAZA
Nola bultza, sostengu ekonomikoa. Gorka Bereziartua kazetariak gidatua.
11:00 Elkarriketa: Laura Mintegi.
13:00 Solasaldia: Xabier Gantzarain eta Maite Arroitauregi.
17:30 Mahai ingurua: ‘Euskal kulturgintzaren babes ekonomikoa’. Joxean Muñoz, Gotzon Barandiaran eta Xabi Paya.
ABENDUAK 8, ASTELEHENA
12:00 ‘Gogoetak’. Xipri Arbelbide.
14:30 ‘Ortzadar: Jakin aldizkariari gorazarre’. ‘Jakin’ aldizkari ordezkariek, Bingen Zupiria eta Iñaki Mendizabal.
15:00 ‘Okzitanier literatura: trobadoreetatik gaur egun arte’. Katy Bernard eta Sèrgi Javaloyès.
16:00 ‘Egunean eguneko ebanjelioa 2015’. Koldo Katxo eta Dionisio Amundarain.
16:30 ‘Euskalduntasuna: lurraldetasuna eta herritartasunaren zutabe’. Urtzi Iltza.
17:00 ‘Síntesis espeleológica de Urbasa-Entzia’. Agustin Chasco eta Angel Luqui.
GOGOETAREN PLAZA
Nola heda, transmisioa. Uxue Alberdi kazetariak gidatua.
11:00 Elkarriketa: Gorka Urbizu.
13:00 Solasaldia: Maialen Lujanbio eta Niko Etxart.
17:30 Mahai ingurua: ‘Kultur transmisioaren korapiloa’ Jon Sarasua, Ander Lipus eta Mari Jose Olaziregi.

AZOKA TB GUNeko EGITARAUA

ABENDUAK 5, BARIKUA
10:45 ‘Azokan gaur’. Magazina. Platotik zuzenean.
12:00 ‘Amaia DJ’. Platotik zuzenean. Ikasleei zuzendutako hiru saio.
13:00 ‘Amaia DJa’. Platotik zuzenean. Publikoari zabalik.
13:30 ‘Tumatxak’.
14:30 ‘Tribuaren berbak’.
16:00 ‘Landakoenea’. Magazina. Platotik zuzenean.
18:00 ‘Azokan gaur’. Magazina. Platotik zuzenean.
19:00 ‘B aldeak’. Irratsaioa. Platotik zuzenean.
ABENDUAK 6, ZAPATUA
10:45 ‘Azokan gaur’. Magazina. Platotik zuzenean.
12:30 ‘Kulturriketak’. Gorka Urbizu’.

13:00 Elkarriketa: ‘Xalbador’. Platotik zuzenean.
13:30 ‘Tumatxak’.
14:30 ‘Tribuaren berbak’.
16:00 ‘Landakoenea’. Magazina. Platotik zuzenean.
17:15 ‘Amaia DJa’. Platotik zuzenean.
18:00 ‘Azokan gaur’. Magazina. Platotik zuzenean.
19:30 ‘Kulturriketak’. Lander Garro’.
ABENDUAK 7, DOMEKA
10:45 ‘Azokan gaur’. Magazina. Platotik zuzenean.
12:30 ‘Kulturriketak’. Fran Urias’.
13:30 ‘Tumatxak’.
14:30 ‘Tribuaren berbak’.
16:00 ‘Landakoenea’. Magazina. Platotik zuzenean.
17:15 ‘Amaia DJa’. Platotik zuzenean.

18:00 ‘Azokan gaur’. Magazina. Platotik zuzenean.
19:30 ‘Kulturriketak’. Toti Martínez de Lezea’.
ABENDUAK 8, ASTELEHENA
10:45 ‘Azokan gaur’. Magazina. Platotik zuzenean.
12:30 ‘Kulturriketak’. Ines Osinaga’.
13:00 Elkarriketa: ‘Gaztezulo’. Platotik zuzenean.
13:30 ‘Tumatxak’,
14:30 ‘Tribuaren berbak’.
16:00 ‘Landakoenea’. Magazina. Platotik zuzenean.
17:15 ‘Amaia DJ’. Platotik zuzenean.
18:00 ‘Azokan gaur’. Magazina. Platotik zuzenean.
19:30 Azokaren itxiera. Zuzenean.


Durangaldea istorioz eta historiaz betea



Gerediaga Elkartearen erakusmahai- an eskuragarri izango da azoka egunetan ‘Astola’

Astola ikerketa eta historia urte-
karia prest dago. Zortzigarren alea
argitaratu du Gerediaga Elkartek.
Durangaldeari buruzko ikerketak
jasotzeko eta sustatzeko helburua
duen argitalpen honetan, eskualde-
ko gertakari historikoak, denboran
iraun izan dutenak eta egungoak
jasotzen dira hamar erreportaje,
ikerketa eta lanetan. Ikerketa lanak
ez ezik, argazkiak eta irudiak ere
esanguratsuak dira.

Durango Azokan izango da
aldizkaria eskuragarri 5 euroan.
Gero, Durangaldeko ohiko liburu
dendetan ipiniko da salgai.



Proiektu handietarako ideiak Juan Antonio Hernández

Aireportua, urtegia, automobi-
lentzako zirkuitoa, golf zelaia,
aire librean uri museoa, luxuzko
urbanizazioa, latorrizko fabrika
eta kotxeen produkzioarako lantegi
handiak izan dira, besteak beste,
Durangalderako pentsatuta egon
izan diren proiektu handietako
batzuk. Arrazoi desberdinengatik,
baina, ideietatik harago ez dira se-
kula egikaritu.



Urkiolako isiltasun gordeak GEMA espeleologia taldea

Urkiolako parke naturaleko hai-
tzen edertasunak asko liluratsen
ditu. Barruak ere ikusgarriak
dira. GEMA espeleologia taldeak
egin duen inbentarioan agerian
geratzen da hori. Durangaldeko
eta Indusiko bederatzi kobazuloe-
tako altzorrak bistara ipini dituzte,
bakoitzari dagozkion ezaugarri
nagusienak azpimarratuta eta ar-
gazkiak erakutsita.



Durango heretikoak Iñaki Bazan

XV. eta XVI. mendeetan erlijio disi-
dentiak hainbat gertatu ziren, eta,
ondorioz, asko izan ziren suteetan
erretzera kondenatuak. Durango
heretikoaren gaineko istorio asko za-
baldu da harrezkero. Ikerketa honek
sekta honi buruz dauden galdera
asko erantzuten ditu: nortzuk izan
ziren, zein mezu zabaltzen zuten eta
nortzuk jazartzen zituzten, esaterako.



Margarita Maturana Berriztik mundura Juan Manuel González Cembellin

Berrizko Mesedetako mojen Vera-
Cruz barnetegira bidali zuten etxe-
koek neska bilbotarra. Baina bere
misiolari bokazioak munduan zehar
eraman zuen. Pertsona baikorra iza-
ki, proiektu asko aurrera ateratzeko
eta munduan erreferente izateko gai-
tasuna agerian utzi zuen.



Agur geltokiak Txelu Angoitia

Durango tren geltoki zaharrak
esan zigun agur lehenengo, eta bilte-
giak gero. Makinak garbitu, konpon-
du eta txukundu egiten ziren lekura
sartzeko aukera izan dugu, testigan-
tza erabat galdu aurretik, irudietan
jasota uzteko. Urtetan trenen biltegi
izan diren garaje handiak bisitatu
ditugu. Azken beharginak izan dira
Astolako argazkilariaren gidari.



Durango aratustek Marisa Barrena

XVII. mendean *Carnestolendas* ize-
nagaz ospatzen ziren karnabalak
Durango; gaur egun Surrandiak
ibiltzen dira kalez kale. Orduetik
gaur egunera izandako ohiturak eta
horiek berreskuratzeko egin diren
ahaleginak dira irakurgai errepor-
taje honetan. Argazkietan, berriz,
Surrandien jantzi eta maskarak dira
nagusi.



Parra taberna Carlos Eriz

100 urteko Elorrioko taberna hone-
tan mila istorio gertatu da. Taberna
bat baino gehiago dela azpimarra-
tzen dute askok. La Parra taberna-
ren izaera berezi hori hobeto uler-
tzeko, lau hormetatik harago eta lau
hormen barruan gertatutakoak batu
dira lan honetan.



Merinaldea mapan Ramon Oleaga

Lurraldea ezagutzeko eta interpreta-
tzeko balio duen bitartekoa da mapa.
Historian, Durangaldeko Merinaldea
mapetan zelan ordezkatu izan duten
argituko duen erreportajea da *Asto-
lak* dakarrena, baina ez idatziz baka-
rrik, denboran barrena argitaratu
diren mapak ere erakusten dituelako.



Regoyos Durangaldean Juan San Nicolas

Dario de Regoyos y Valdes margolari
ospetsua hil zela 100 urte bete dira.
Durangaldean ere izan zen, eta berta-
ko paisaia asko margotu zituen. Bere
lan oparoan 40 irudi inguru Duran-
gon pasatu zituen egunetan margo-
tutakoak izan ziren. Euretako batzuk
ikusgai daude erreportajea.



Erlojugileak Erik Arévalo

Durangaldean izan diren erlojugileen
errepasoaz gainera, eskualdeko er-
loju publikoen historia laburra jaso-
tzen duen erreportajea da. Datu aipa-
garria honako hau da: Durangaldeko
hamazazpi dorretan 39 erloju egon
dira guztira. Durango lehenengo
erlojuaren erreferentzia 1553koa da.

49. Durangoko Azokaren liburua orriz orri koloreztatzeko prest

Milaka bisitari eta kulturazalaren elkargune izango da astelehenera arte Durango



> SARRERA Itsaso Esteban Marta Cárdenas artistak egin-dako kartel koloretsuak berotu du urri erdialdetik Durangoko Azokarako giroa. Eta Gerediaga Elkarteko eta azokako gunee-tako arduradunek aurtengo nobedadeak eta datuak aletu dituzte: Okzitaniako kulturak leku berezia izango du aurtén, mugakide dugun herri horren inguruko gure ezagutzan sakontzeko; eta Anuntzi Arana antropologoari emango dio Gerediagak Argizaiola saria. Zapatuan, 20:00etan, San Agustín kultur-gunean egingo duten ekitaldian jasoko du saria.

Okzitaniako kulturari leku berezia egingo diote 49. Durangoko Azokan, datozen egunetan

Arrazoi askok egiten dute berezi 49. Durangoko Azoka. Aurtén, iazko edizioaren antolakuntzak eragindako zorra ordaindu beharrak estututa, erakundeen babesa indartzeko lanean jar-

dun da Gerediaga Elkartea. Erakunde publiko guztiek jo dute Durangoko Azoka euskal kulturgintzarentzat estrategiko, eta, Nerea Mujika Gerediagak presidenteak azpimarratu duenez, estuasun ekonomikoak babes horregaz leundu dituzte.

Mende laurdeneko edizio bereziaren atarian, 49. Durangoko Azokak eta urte guztiotan euskal kultura bultzatzen lan egin duten guztiek esker ona jasoko dute: Korrika dator 2015ean, eta, horren harira, Durangoko Azoka omenduko du AEK-k.

Autoekoizpenei leku

Landako erakustazokako Areto Nagusiaren aldamenean atonduko dute, aurtén lehenengoz, autoekoizpenen gunea. Erakusmahai handi batean bilduko dituzte hamasei sortzailereren lanak. Kulturgintzaren errealtate berri horrentzat egokitu gura dute Durangoko Azoka gunere berri horregaz: "Azokaren ohi-ko arauetatik kanpo geratzen direnei leku egiteko" helburuz atondu dute. Sortzaileek eurek antolatu dute gunere horren ku-deaketa. Euren autoekoizpenak

gunere horretan ipiniko dituzte Zornotzako Lauaxeta ikastolak eta Angel Gallo Durangaldeko sortzaileak: *Klarinete zaharra* liburua eskainiko dute Lauxetako ikasleek, eta *Bambú (iguanarik gabeko lekua)* eta *Samba (dortokek ahaztutako kostaldea)* nerabeei zuzenduriko liburuak Angel Gallok.

Inoizko sortzaile kopuru handiena batu da aurtengo azokako gunekako egitarauan

Inoizko sortzaile kopuru handiena hartuko du 49. azokak. Landako Gunearen osagarri diren guneeetan sorkuntza asko zuzenean entzuteko, eta idazle eta musikariekin berba egiteko aukera izango dute bisitariak gaurtik astelehenera arte. Areto Nagusian, Ahotsenean, Kabi@n, Irudienean, Saguganbaran, Plateruenean eta Szentatikian izango diren ekintzen berri zehatza duzue ANBOToren ale berezi honetan.

Joseba Jakaren oroimenezko herri lasterketa astelehenean

Durango Kirol Klubak antolatu du lasterketa; nagusien mailako proba 11:30ean hasiko da, Ezkurdi plazan

> KIROLA Joseba Derteano Joseba Jakaren oroimenezko herri lasterketak hamabigarren aldia egingo du aurtén. Iaz Durango Kirol Klubak hartu zuen lasterketa urterik urtera antolatzeko ardura, eta aurtén ere ehunka korrikalari gazte eta heldu ibiliko dira astelehenean, Durangoko kaleetatik zehar diseinatutako ibilbidean, lehia, oroimena eta jai giroa uztartzen dituen ekimenean. Iaz 450 parte-hartzaile izan ziren, maila guztiak kontuan hartuz gero.

Lasterketa hainbat mailatan banatu dute, ekimena ahalik eta zabalena izan dadin. Ezkurdi egongo dira irteera puntua eta helmuga. Hauspoa probatzen lehenengoak 2003. urtera arteko gazteak izango dira; 10:45ean abiatuko dira, eta 600 metroko ibilbidea osatu beharko dute As-katasun etorbideetik eta Ermodo

kaletik zehar. Hamar minutu geroago 2001-02 arteko gazteen txanda izango da (1.200 metro). Eskola kiroleko gaztetxoek kadete eta gazte mailakoek hartuko diete erreleboa, 11:10etik aurrera. Maila batekoek zein beste-koek 2.400 metroko ibilbideari aurre egingo diote. Azkenik, nagusiak 11:30ean irtengo dira, eta sei kilometroko ibilbidea izango dute aurretik. Nagusiak ere hainbat mailatan banatuko dituzte adinaren arabera.

lazko lasterketak 450 parte-hartzaile izan zituen, maila guztiak kontuan hartuz gero

Iaz García eta Perea nagusi

Iaz Durangaldeko korrikalariak izan ziren nagusi Joseba Jakaren oroimenezko lasterketan. Gizonetan Dabid García durangarrak irabazi zuen proba, eta Ekaitz Kortazarrek eta Oier Ariznabarretak osatu zuten podiuma. Emakumeetan Carmen Perea durangarra izan zen nagusi, Eider Arenen eta Inma Ruizen aurretik.



Joseba Jaka herri lasterketako iazko irabazleak.



Azkonizaga

CRUZCAMPO • HEINEKEN • BUCKLER • AMSTEL • SHANDY • PEÑACLARA • LA ASTURIANA
Bº Ortuzar, 1 • 48213 Izurza (Bizkaia) Tel/Fax: 94 681 06 52 azkonizaga@azkonizaga.com
www.azkonizaga.com

Juego bolos

ostatua - hostal

San Agustinalde nº 2 - 1º 48200 Durango Bizkaia
T: 94 621 54 88 info@juegobolos.com www.juegobolos.com



ITURRIAGA SUKALDEAK

Gremioen koordinaketa



Trafalxosle, 2-48220 Abadiño - Tlf. | Fax: 94 655 07 22 - 605 740 176

ZERGATIK UKO EGIN CITROËN ESPERIENTZIARI?

**ESKULANEAN
TARIFA FINKOA****5€**
(ZERGAK EZ DAUDE BARNE).**FRENO
PASTILLAK****FRENO
DISKOAK****FRENO
PASTILLAK+DISKOAK****ALDAKETA BAKOITZEKO**

LANAREN DENBORA ZEIN-NAHI IZAN DA ERE

ETA, GAINERA, DOAKO AZTERKETA OINARRIZKO 12 SEGURTASUN OSAGAIETAN:

*Pneumatikoen, ihes-hodi eta finkapenen, haizetako-garbigailuen, transmisio hauspoen eta direkzio-hauspoen egoera. Direkzio, balazta edo LHM edo LDS, hozgarrien eta motorraren olio-mailaren egiaztapena. Motelgailuen, motorraren eta abiadura-kaxaren estankotasuna.

**BATERIAK****BATERIAREN
DIAGNOSTIKOA****DOHAINIK**BATERIAREN, BATERIAREN KARGAREN
ETA ABIO-MOTORRAREN EGIAZTAPENA.**ESKAINITZA**


CITROËN		EUROREPAR	
60 AH6	86,60 € (IVA: 560075)	0 AH	74,80 € (IVA: 1809232882)
75 AH7	114,20 € (IVA: 560075)	0 AH	98,20 € (IVA: 1809232882)

Bateriaren salneurria, BEZa barne. Beste CITROËN edo EUROREPAR baterietan
%30eko deskontua ezarriko zaie salneurri ofizialei (eskulana ez dago barne).**HAIZETAKO-GARBIGAILUA****%30** EKO
DESKONTUA

Eskaintza 2014/03/31ra arte egongo da indarrean.

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

**TABIRA AUTOMOCIÓN, S.A.** CITROËN ETXEKO ZERBITZU OFIZIALAPadureta Industrialdea, 1 - 48215 IURRETA Tel.: 946 811 108 tabira@tabira.redcitroen.com <http://redoficial.citroen.es/iurreta>



Anuntxi Arana | Antropologoa | Luiaondo, Aiara (Araba), 1947

“Kondairak apaindura bakoak dira, baina aldi berean literarioki ederrak”

Zapatuan, 20:30ean, San Agustin kulturguneko ekitaldian Argizaiola saria jasoko du Anuntxi Aranak



1996an argitaratu zuen bere lan nagusia: ‘Orozko Haraneko kondaira mitikoak, bilduma eta azterketa’. Gerediaga Elkarte.

> ARGIZAIOLA J. Derteano
Anuntxi Arana antropologoa jasoko du Durangoko Azokako Argizaiola saria. Frantses filologian lizentziatua da, eta AEK-ko irakasle izan da Baionan (Lapurdi), eta baita EHEko kide ere. Gainera, bortizkeria sexisten aurkako kolektibo feministan ibilitakoa da.

Zer sentitu zenuen Argizaiola saria jasoko duzula jakinarazi zizutenean?

Lehen sentazioa harridura izugarria izan zen. Ondoren, poza eta Gerediagarekiko esker ona sentitu nituen. Aurreko urteetan saria nortzuek jaso duten ikusita, ohoratua sentitzen naiz, egia esanda. Eguna hurreratzen doan heinean, larritasun puntu bat ere sentitzen dut.

Toki askotako mitologia aztertu duzu zure ibilbidean, tartean baita Anbotoko Marirena ere. *Mito hurbilak* liburuan idatzituen berari buruz. Anbotoko Mari edo Anbotoko Dama, bieta-ra deitzen diozue zuen inguruan. Beste toki askotan ere inkestatxo bat egin du, eta Anderea, Señorea edo Dama deitzen diote. Mari ere erabiltzen da, baina tradizioan gehien erabili diren izenak beste horiek dira.

Laster hogeit hamar urte beteko dira ‘Orozko Haraneko kondaira mitikoak, bilduma eta azterketa’ doktorego tesia egin zenue netik. Zelan gogoratzen duzu zure bizitzako etapa hura?
Oso oroitzapen onak ditut. Istorio berririk ez nuen aurkitu, baina bai istorio berberen bertsio

“*Oso interesgarria da ikustea istorio berberak hainbat interpretazio dituela toki batean edo bestean*”

“*Euskara jakin bai, baina gero egunerokotasunean erabiltzen ez badugu, jai dugu*”

desberdinak. Oso interesgarria da ikustea istorio berak hainbat interpretazio izan ditzakeela toki batean edo bestean. Niretzat aberasgarria izan zen kanpo lan hori egitea; beste modu batera begiratzeko diezu istorioei. Esaterako, jendeari istorioa bertatik bertara entzuten diodanean, edo esaten didatenean eurei nork kontatu zien, edo zergatik sinesten duten edo zergatik ez, kontu guzti horiek istorioei beste era batera begiratzeko aukera eman didate. Hori guztia ez da bilduma zaharretan aurkitzen. Esperientzia horiek bizitzea zoragarria da.

Zientziaren eta aurrerapenaren gizartean bizi gara. Orduan aurkitu zenituen kontalarrien pasioak badu tokirik belaunaldi berrietan?

Ez du izango tradizioan izan duen tokia. Tradizioan istorio horietan sinesten zen, gaur egun elektrizitatean sinesten dugun moduan. Nire ustez, ez du berriro sasoi haietako rolik izango. Su bazterrean edo arto zuriketan istorioak kontatuta ematen zen transmisioa, eta kate bizi hori eten egin da. Orain idatzita gertzen dira. Horrelako kondairak herrialde bateko historiaren parte dira. Kondairak izugarri ederrak dira, apaindura edo sasi-lirismo bakoak, baina aldi berean literarioki ederrak. Gauza horiek inportanteak dira, eta eskolan irakatsi beharko lirateke, nire ustez.

Baduzu proiektu berririk esku artean?

Udaberrian liburu bat argitaratzeko asmoa dut. Hilak mundu honetara bisitan etortzen direnean zelan agertzen diren, zelako agerpenak dituzten eta beste

izaki mitikoekin zelako hartu-emanaren duten landuko dut, adibidez.

AEKn urte askoan ibilitakoa zara. Euskarak zabaltzeko dituen zailtasunen artean sarritan aipatzen da ezagutzaren eta erabileraren artean dagoen desoreka.

Bai, ados nago. Euskararen etorkizuna ziurtatzeko gaitasuna behar den arazo nagusienetakoa da hori. Jakin bai, baina, gero egunerokotasunean erabiltzen ez badugu, jai dugu. Euskalgintzarentzat euskara indartzea lan berria izan da. Kemen handia erakutsi da ikastoletan, baina jendartea ez dago ikastetxeetan bakarrik. Ikastolek euskararen erabilera ziurtatzeko zutela uste zen, baina ikastolek euskararen jakintza ziurtatu dezakete, ez erabilera. Pertsona helduok euskaraz aritzeko erantzukizuna dugu, ez umeekin bakarrik, baita geure artean ere. Familia transmisioa oso inportantea da. Eta saltoki handi zein txikietan dagoen hutsunea handia da. Esaterako, oso jate txikiak ikusten dit menua euskaraz. Euskaraz egingo dizute, baina menua gaztelaniaz aurkituko duzu. Bestetik, sektore publikoak ere bere erantzukizuna du, jakina. Administrazioek asko dute egiteko, ondoren, sektore pribatuan euskara erabili dadin.

Mugimendu feminista ere gertutik ezagutzen duzu. Berdintasunaren aldeko borrokan ere badago bidea aurretik.

Hezkuntza oso garrantzitsua da; esaterako, mutilek neskek baino espazio askoz gehiago hartzen dute beren jolasetarako. Testuliburuetan ere generoen arteko rol banaketa egoten da. Edo mitiko zein neskato horiek ikusten dituzten iragarkietan neskei *Barbie* panpinak saltzen dizkiete, eta mutilei *action man* jostailuak. Txiki-txikitatiki gaude murgilduta bi roletan banatuta den jendartean. Eta haurrek hori dena ikasten eta jasotzen dute.



- 2 eta 3 logelako 35 etxebizitza •
- Garajeak eta trastelekuak •
- Merkataritza lokala •



2 logelako etxebizitzak 194.000 eurotik hasita.
Trastelekua eta garajea prezioaren barruan.
Horma-armairuak, domotika eta doako Internet konexioa ditu.

Obrak hasita daude!
Kutxabankek finantzatzutako eragiketa **946 814 495 / 650 397 007**
www.promotoraargolabe.com

Jean Jacques Casteret (Pau, 1970) | Akitaniako Institut d'Estudis Occitans erakundeko zuzendaria

“Okzitaniako hizkuntza eta kultura ezagutarazteko aukera ederra da azoka”

Okzitaniako kultura eta hizkuntzaren gaineko mahai inguruan izango da domekan Jean Jacques Casteret Institut d'Estudis Occitanseko zuzendaria

> KULTURA J. Derteano
Durangoko Azokako aurtengo kultura gonbidatua Okzitania da. Hainbat lurraldek osatzen dute Okzitania –Frantzia hegoaldean daude, batez ere–, eta historikoki okzitanieraz berba egin da lurralde horietan. Jean Jacques Casteret, azokan Okzitaniak izango duen ordezkarietako batek, mahai inguru batean parte hartuko du, domekan, 12:30ean, Kabian.

Zelan hartu zenuten okzitanian kultura eta hizkuntza azokan ezagutarazteko gonbita? Iaz azokan izan ginen, Euskal Kultur Erakundeak gonbidatuta. Azoka bertatik bertara ikusi genuen. Aurtengo gonbidapena gogo handiz hartu dugu. Badiugu erakundeak gure kultura eta hizkuntza zabaltzeko eguneror lanean dabiltzanak, baina ez hemen beste. Guretzat azoka aukera ederra da Okzitaniako kultura ezagutarazteko eta hemengo errealitatea ezagutzeko.

Kultura bizia dela erakutsi gura duzue.

Bai. Okzitaniako kultura zerbait historikoa balitz bezala ezagutzen da gaur egun, Europako historiaren barruan, baina jendeak jakin behar du kultura eta hizkuntza bizi bat dagoela horren atzean, eta jendea lanean dabilela hori mundura zabaltzeko. Esaterako, literaturaren bidez. Okzitaniako adierazpideak eta dialekto gaskoia zerabiltzan Bernard Manciet idazlea, poeta ezaguna Frantzian, literaturako Nobel saria irabazteko hauta-

gaien artean izan zen orain urte batzuk.

Euskal Herriak eta Okzitaniak zelako hartu-eman izan dute? Hizkuntzari dagokionez, erromanizazioa baino lehenagokoak dira loturak. Antzina, Okzitaniako Akitania eremuan zegoen hizkuntza eta Pirinioen beste aldean zegoena berbera zela badakigu; gaur egungo euskara garaikidearen jatorria izango litzateke, eta baita okzitanieraren muina ere. Jakina, besteak beste, hartu-eman komertzialak eta kulturalak ere egon izan dira. Historia garaikidera etorrira, esaterako, 1980ko hamarkadatik hona, bateko eta besteko musika taldeen artean hartu-emanak

“Jendeak jakin behar du kultura bizia dagoela atzean, eta jendea lanean dabilela mundura zabaltzeko”

“Akitanian eta Midi-Pyrenees eskualdeetan %10-12k egunero hitz egiten du okzitanieraz”

izan dira. Oskorri eta Nadau taldeek kontzertuak eskaini izan dituzte elkarrekin. Gainera, jende gazteagoa ere badabil musika egiten, eta euskal taldeekin elkarlanean.

Zein da okzitanieraren gaur egungo hiztun kopurua?

Oso gaitza da esatea. Ez dago kopuru osoa jasotzen duen ikerketa zientifiko orokorrik. Orain bost urte ikerketa bana egin zen Akitania eta Midi-Pyrenees eskualdeetan; herrialde bi horietan, guztira, sei milioi lagun bizi dira. Ikerketaren arabera, biztanleen %10-12k egunero hitz egiten du okzitanieraz; horiek 700.000 lagun inguru dira. Eta ikerketa beraren arabera, %50 inguru dira gai okzitaniera ulertzeko. Ikerketa horiek ondoren hizkuntza politikak diseinatze-ko eta garatzeko helburuz egin ziren. Dena dela, hiztunak gune askotan aurkitu daitezke. Italian okzitaniera dakiten 200.000 hiztun inguru daude. Orain zortzi urte Italia iparraldean egindako Neguko Olinpiar Jokoen hiruhizkuntza ofizial izan ziren: italiara, piamontera eta okzitaniera.

Hizkuntza politikak aipatu dituzu. Zeintzuk dira politika horien oinarri nagusiak?

Irakaskuntza eta komunikabideak dira jomuga nagusieta-ko bi. Irakaskuntzan badaude aurrekariak, batez ere, 1980ko hamarkadatik hona, baina hizkuntza politika berrieekin sostengu eta laguntza handiagoa egongo da. Komunikabideen arloan, hor dugu orain gutxi sortu den



“Iaz azokan izan nintzen, eta gogoan dut jende gazte asko ikusi nuela; hori oso ona da”

eta Durangoko Azokan izango den OC telebista. Internet da bere euskarria, eta dena okzitanieraz da.

Domekan ‘Euskal Kultura eta okzitaniarra sustatzeko tresna digitalak’ izeneko mahai inguruan parte hartuko duzu.

Bai. Nire kideekin batera –EKEko Pantxoa Etchegoien, Azkue Fundazioko Iurdana Acasuso

eta Okzitanieraren Kongresuko zuzendari Benaset Dazéas– baliabide digitalek dakartzaten aukeren gainean jardungo dut. Okzitaniak eremu zabal eta handia hartzen du; herrialde administratibo asko ukitzen ditu, eta horietara heltzeko baliabide egokiak dira.

Iazko aldian ere Durangoko Azokan izan zinen. Zer iruditu zitzaizun? Zer iritzi duzu azokaren inguruan?

Jende gazte asko ikusi nuela gogoratzen dut, eta hori oso ona da. Azoka oso handia eta jendetsua da Durangokoa, milaka lagun batu zituen egun gutxitan. Frantzian zehar, Paris eta beste hiri handi batzuetan, antzeko azokak ezagutzen ditut, baina Durango bezalako herri txiki batean hain maila handiko azoka antolatzea itzela da: liburuak, diskoak, aurkezpenak...

San Agustinalde, 12 - 48200 Durango
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

SZENATOKIA
ARTE ESZENIKOEN GUNEA

Szenatokia
DURANGOKO AZOKA Azaroaren 7an
12:00 - 14:00 Parasite AT, Ixabel Agirresarobe, Atx At, Labanaroa AT.
18:00 - 20:00 Taupada AT, Ixabel laguntzen AT, Mikel Martinez, Joseba Usabiaga

Txapeldun
Organik Dantza Taldea & Kepa Junkera
Azaroaren 8an - 19:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

AZKONIZAGA
JATETXEA
Euskal Sukaldaritza

Azoka egunetan zabalik!

Eguneko menua 10€
Menu berezia 15€

Ortuzar, 1 IZURTZA
Tel.: 946 812 025

“Komunikazioa eta publizitatea enpresa mota guztientzat dira eskuragarriak”

Diseimediak agentzia handien kontzeptua hautsi du, komunikazioa enpresa txikien eskura jarrita



Bego Goitia eta Irune Mateo Diseimediaren sortzaileak dira.

> KOMUNIKAZIOA J.G. Bego Gotiak eta Irune Mateok Diseimediak komunikazio enpresa osatzen dute. Gaur egun enpresa handi zein txikiek komunikazioa lantzeko duten premiei erantzutea da Durangoko enpresa honen helburua. Bezeroen beharretara egokitzeko gaitasuna da Diseimediaren gakoa.

Zer da Diseimediak? Diseimedian komunikazio eta publizitate zerbitzuak eskaintzen ditugu. Sormena eta komunikazioa bateratzen ditugu, bezeroek euren helburuak lortu ditzaten: gehiago saltzea, irudia hobetzea, ezagutaraztea eta abar. Euren beharrak identifikatzen ditugu, eta konponbidea eskaintzen diegu.

Zer zerbitzu eskaintzen duzue?

Lau esparru nagusi lantzen ditugu: diseinu grafikoa (logotipoak, kartelak eta katalogoak, adibidez); argazkiak eta bideoak;

“**Aeronautikako sektorearentzat zein komertzio txikientzat egiten dugu lan, adibidez**”

“**Krisia ez dugu nabaritu, poltsikoetara egokitzeko moduak bilatu ditugulako**”

online marketina, hau da, web orrialdeen eraikuntza eta diseinua; sare sozialak; Internet bidezko kanpainak; eta, azkenik, aholkularitza eta estrategia. Komunikatzeko euskarri guztiak eskaintzen ditugula esan daiteke. Zerbitzu integralak eskaintzearen helburuak bi dira. Lehena bezeroarentzat komunikazio eraginkorragoa lortzea. Komunikazioaren euskarri guztiak hornitzaile berberagaz kudeatzerakoan, horiek estrategia beraren eraginpean garatzen dira, eta, ondorioz, komunikazio kanpaina eraginkorrago bat lortzen dugu. Bigarren helburua da bezeroari erosotasuna eta erraztasuna ematea; hornitzaile bakar batekin harremanetan egoterakoan, denbora eta dirua aurrezten du eta.

Kolaboratzaileak dituzue? Bai, konfiantzazkoak. Gure ibil-

bide profesionalean ezagututako hainbat freelance eta profesionalekin, eta beste hainbat enpresagaz kolaboratzen dugu. 3D diseinua, programazioa, mugikorretarako aplikazioak... bezeroari balioa eskaintzen dion guztia. Kolaboratzaileei esker proiektu lehiakorak, eraginkorak eta bereziak eskaini ahal dizkiegu bezeroei.

Komunikazioa enpresa handiek bakarrik egin dezaketela uste dute askok. Enpresa txikiekin ere badiharduzue?

Beti pentsatu izan da publizitate zerbitzuak garestiak direla, eta, beraz, enpresa handien eskura besterik ez daudela. Diseimediak orain arte gizartean egon den agentziaren kontzeptu horregaz apurtu du. Diseimedian ikusi genuen beste agentzia modelo bat eskaintzeko beharra zegoela, estruktura txikiago batek

kalitate berbera eskaini dezan, baina prezio baxuagora. Gure filosofia argia da: komunikazioa eta publizitatea enpresa mota guztientzat eskuragarri egitea. Hori lortu daiteke koste estrukturalak kontrolatuta, baliabide aproposenak aukeratuta, eta sormena eta estrategia landuta. Beraz, komunikazioak ez du zertan enpresa handietara mugatuta egon. Txikiek handiek bezain era profesionalean komunikatu dezakete.

Zerk bereizten zaituzte beste agentzia batzuetatik?

Aurretik aipatu dugun moduan, enpresa handienetik komertzio txikienera moldatzeko dugun gaitasunak, profesionaltasun eta kalitate berbera eskainita, eta bezeroaren poltsikoetara egokituta. Horren adibide dira egin ditugun lanak: bideo dokumentalak aeronautikako sektorearentzat, webguneak ingeniariarentzat, argazki katalogoak saltokientzat eta komunikazio kanpainak ekin-tzaileentzat, adibidez. Horretaz gainera, arreta pertsonalizatua eskaintzen dugu, eta bezeroek asko baloratzen dute hori.

Zein da bezeroek gehien eskaintzen duten zerbitzua?

Azken urteetan aldaketa handiena enpresari txikien eta saltokien artean igarri dugu. Komunikazioaren eta publizitatearen garrantziaz konturatu dira, eta euren irudia indartzera animatzen dira; batez ere webguneak egiten dituzte Interneten, eta, adibidez, online dendak eta bideoak jartzen dituzte abian.

Krisia nabaritu duzue?

Zorionez ez. Lana etengabe izan dugu, bezeroen poltsikoetara egokitzen jakin dugulako. Eta horrela jarraitzea espero dugu.

Zeintzuk dira etorkizunerako dituzuen erronkak?

Beste agentzia guztietatik bereizten gaituzten ezaugarri horiek guztiak lantzen jarraitzea eta indartzea. Eta, aldi berean, enpresa handitzea, lanpostuak sortzea eta inguruko enpresentzat komunikazioaren eta publizitatearen arloan erreferente bat izatea.

Onenak soilik iristen dira

diseimedia@diseimedia.com | tlf:665 745 620

disei
media
www.diseimedia.com



Xabier Amuriza, Mañukorta eta Bizkaiko Bertsozale Elkarteko Jone Narbaiza liburuen aurkezpenean.

“Mañukortaren buruera klaserik ez da existitzen munduan, berea ez besterik”

Xabier Amurizak ‘Mañukorta, bertsonajea’ izeneko liburua idatzi du

> BERTSOLARITZA J. Derteano Bizkaiko Bertsozale Elkartek Bizkaiko bertsozaintzan dihardutenen biografiak jasotzeko eta jendartearen zabaltzeko konpromisoa dauka. Aurten, Gregorio Larrañaga *Mañukorta*

aukeratu du, bere bizitza plaza-ateratzeko bertsozaintzari eskainitako beharrezkoak eta Euskal Herriko plazetan emandakoak. Liburua *Mañukorta, bertsonajea* deitzen da, eta Xabier Amurizak idatzi du.

Zapatuan, 17:00etan, aurkeztuko dute liburua Areto Nagusian.

Amurizak *Mañukortagaz* izandako solasaldi luzeen emaitza da. Batez ere, elkarriketa formatuan idatzita dago. Hizkuntzari dagokionez, testu na-

rratiboa euskara batuan idatzi du, eta bien arteko elkarriketak bizkaieraz. Mañukortak bertsozaintzan izandako ibilbideetik harago, liburua batez ere Mañukorta pertsonaiarengan oinarrituta dago: “Mañukorta pertsonaia bat izan da. Ikusten nuen bertsozaintzan izandako ibilbidean oinarrituta barik, batez ere pertsonaia oinarrituta egon behar zuela. Euskal Herriko finalera heldu ez den bertsolari bat zergatik izan da hain popularra? ‘Buru desberdinak modu desberdinean arazoitu behar du’, pentsatu nuen, eta susmo hori izan da abiapuntua. Bertsoari buruz ez ezik, bizitzako atal askori buruzko bere ikuskera jasotzen ahalegindu naiz. Bere buruera klaserik ez da existitzen munduan, berea ez besterik”, azaldu du Amurizak.

Mundu ikuskera berezia izango du Mañukortak, baina ondo mamitua eta arrazoiarengatik jantzia, Amurizaren esanetan: “Ematen dituen arazoiketak gaurko munduan dabilen inork emango ez lituzkeenak dira, baina aldi berean logikoak dira”. Liburuan zehar bistaritzen den Mañukortaren beste ezaugarri bat munduan ibiltzeko izan duen



konfiantza da: “Mañukortak munduan ibiltzeko eta bizimodu antolatzeak daukan konfiantza eta autoestimua oso toki gutxitan aurkitzen da. Bizitza kalkulatu bat izan du”.

Mañukortaren koherentzia azpimarratzeko Isaac Newton eta bien arteko paralelismoa darabil Amurizak liburuen hitzaurrean. Honela dakar hitzaurreak: “Newtonen grabitazio legeak unibertsoaren ariera argitasun handi eta zehatza ekarri zuen. Paralelismoa Mañukortaren izatera ekarri, honen unibertso mentala, emozionala eta jardunezkoa oso zehatza eta koherentea da, eta beldur barik konpara daiteke unibertso fisikoaren sistemagaz. Bere buruarengan konfiantza handiagorik daukanik nekez aurkituko duzu inon”.

Bittor Kapanagaren lanak bildu dituzte ‘Euskera erro eta gara’ liburuan

Bost lanek osatzen dute liburua, eta horietako hiru argitaratu gabeak dira

> LITERATURA J.D. Bittor Kapanaga ikertzaile eta idazle otxandiarra hil zenean, bere adiskide izandako batzuek Kapanagaren figura eta obra mezei duen tokian jartzeko ardura hartu zuten. Horretarako, Kapanaga ondo ezagutu zuten 26 laguni grabazioak egin zizkieten, eta *ahotsak.com* gunean eskuragarri ipini zituzten; gero, aurtengo uztailan, kantaldi bat antolatu zuten Otxandion. Baina hasieratik argi izan dute Kapanagari egin diezaioketen omenaldirik ederrena bere lanak argitaratzea dela. Izan ere, egun ez da erraza

Kapanagaren liburuak liburu dendetan aurkitzea, agortuta daudelako. Ideia horren emaitza da *Euskera erro eta gara. Euskaldunon hizkuntza eta ikuskera*. Domekan, 16:30ean, Areto Nagusian aurkeztuko dute liburua.

Bi liburukitan emango dira argitara lanak, eta Durangoko Azokan salgai egongo dena lehenengoa da. Egilearen biografia batez batera, euskerari eta euskaldunon mundu ikuskerari buruzko bost lan irakurri daitezke liburuan. Horietako bi aurretik argitaratuak dira: *Euskera erro eta gara* –Kapa-

nagaren lanik ezagunena, euskararen erroei buruzkoa– eta *Testu zahar baten bitxitasunak*. Beste hiru lanak, aldiz, orain arte argitaratu gabeak dira: *Euskera batua eta euskalkiak* (1984), *Euskaldunon ikuskera* (2001) eta *Initza* (2004). Gerediaga Elkartea da argitaratzailea, eta Juan Martin Elexpuru idazle eta itzultzaileak egin ditu edizio lanak. Datorren urteko azokarako prestatu gura duten bigarren liburukiak kantuen letrak eta poemak jasoko ditu, eta baita hainbat aldizkaritan idatzitako artikulatuak ere, besteak beste.




Juan Martin Elexpuru eta Jose Luis Lizundia, liburuaren aurkezpenean.



BERETEK

ARKITEKTO TEKNIKOEN BULEGOA



- Jarduera proiektuak
- Eraikinen patologia txostenak
- Peritazioak
- Legeztapenak
- Birgaitze eta berrizteak
- Obra berriak
- Proiektuak
- Obren zuzendaritza
- Obren gauzatze zuzendaritza
- Hirigintza
- EIT-ITE Eraikinen ikuskapen teknikoak
- EET-IEE Eraikinen ebaluazio txostenak
- EEK-CEE Eraikinen energia kalifikazioak
- Aurrekontuak, neurketak, zuinketak.
- Andamiatzeak
- Kalitate kontrola
- Igogailuak eta plataforma jasotzaileak

Zenbateko pentsioa geratuko zait?

Noiz hasiko naiz aurrezten?

Zatoz eta zaindu zure etorkizuna

Nola aurreztu behar dut?

Zenbat aurreztu behar dut?

kutxabank **k**

Zaindu zure etorkizuna.

BASKEPENSIONES.
Kutxabank SA Bazkide babesle eratzaillea / Kutxabank Gestion IKESK SAU Ondare Kudeatzailea. **e.p.s.v.**

Zatoz Kutxabankeko bulegora, **bertan lagunduko dizugu erretiroa hartuko duzun eguneko pentsioa kalkulatzen** eta etorkizuneko beharrianen araberako Baskepensione-seko planik onena aukeratzen. **Zatoz eta galdetu.**

Mila Salterain | Idazlea | Abadiño, 1955

“Pertsonaia historikoen asmoak eta arrazoiak nobelatzea da egin dudana”

XII. mendeko Durangaldean kokaturiko ‘Erresumaren ilusentia’ nobela idatzi du Mila Salterainek

> LITERATURA **Itsaso Esteban** **Historia eta fikzioa uztartu dituzu zure lehenengo nobelan.** Bai, pertsonaia historikoen asmoak eta arrazoiak nobelatzea izan da asmoa, 1190. eta 1199. urteen arteko gertakizunak kontatzeko. Ez naiz Historian lizentziatua, eta nobela generoa aukeratu nuen kontatu nahi nuena azaltzeko eta historia lantzeko esparru malguagoa uzten zidalako. Gustu eta plazer handiz egin dut.

Zerk bultzatu zaitu ‘Erresumaren ilusentia’ idaztera?

Abadiñon egin genuen toponimia lan bat da sorburua; XV. mendetik Abadiño izen horregaz agertzen dela ikusi genuen dokumentazio lan horretan. Horretan genbiltzala, Jose Luis Lizundiak *Toponimia medieval en el País Vasco* liburua utzi zidan, eta han

aurkitu nuen: “Aičlucea, Aitçlucea, Aççluce, Atçlucea, Ailluça tenentzia”. Astxiki mendian gaztelu-haitz bat zegoela entzuna neukan, eta banekien 1994an inguru horretan egindako indusketetan agertu ziren aztarnak eta Eskoriatzako Atxorrotzen jasotakoak berdinak direla. Jakin-min handia sortu zitzaidan, eta ikerkuntza abiatu nuen 2011ko udan.

Nafarroako Erresumak zelako presentzia eduki zuen gurean?

Nafarroako *tenentzia* zegoen hemen, eta bide inportanteak igarotzen ziren Durangaldetik; lautada eta kostaldea lotzen zituztenak. Erresuma baten barruan gotortuta zegoen gure inguru hau erresumatik kanpo geratzeko zer gertatu zen, zelako zirrikitu eta traizioak gertatu ziren

jakin guran hasi nuen liburua. Petro Latroneren traizioaren zantzuak egon badaude. Bestalde, 1195ean Alarcosko gudari gurutzada kategoria eman zioten, eta Nafarroako erregea ez zen joan; izan ere, harreman onak zitu- en almohadeekin. Antso erregeari eskumikua eta herritarrei interdiktua ezarri zizkietela ere jasota dago Aragoiko dokumentuetan. Erresumako herritarrei elizara joatea debekatzen zieten interdiktugaz.

Oso ezezaguna zaigu askori gure historiako parte hori.

Bai, eta neuk ere asko irakurri behar izan dut. Liburua idazten hasi orduko, hamaika txosten eta liburu irakurri dut. Askok ikasi dut. Edonola ere, Alluitzeko dorrearen berri lehenengoz aitaren ahotik jakin nuen, 19 urte ni-

tuela: “Hemen dorre bat egon eizun sasoi batean”, esan zidan.

Euskal literaturan ez da ohikoa gai hauek lantzea.

Ez da ohikoa nobela kokatzeko hautatu dudan sasoi historikoa aukeratzeko. Gogoratzen dut umetan abenturazko zinema gustuko genuela, eta liluratu egiten gintzutenela *Robin Hood* eta antzeko protagonista abenturazaleek. Gero konturatzen zara han agertzen zen Richard I Lehoi-bihotza erregea Nafarroako Berengela-gaz ezkontuta zegoela, eta gure historiagaz harremana zeukala. Nafarroako erregearentzat gale- ra handia izan zen Durangaldea Gaztelako Erresumaren menpe jaustea. Baina herritarrentzat zer suposatu zuen? Gure jatorri- ri buruzko kontzientzia galdu- genuela uste dut nik.

Gizarteko maila guztietako pertsonaiak daude liburuan.

Bai, herritar xumeen inguruko istorioekin abiatu nuen liburua, eta, hasieran alferra ematen bazidan ere, erregearen inguru- an ere egituratu dut liburuko trama. Alde horretatik, nobelan ikusten da XII. mendeko gizartea zelan zegoen araututa. Abadiñok gerora sei errejidore izan zituen, esaterako: elizate edo auzune ba- koitzak bana.

Urazandi izena duen eremuan kokatu dituzu nobelako gerta- kizunak.

Bai, Urazandi auzoan. Liburu- ren hasieran ematen dut istorioa eta historia kokatzeko mapa bat. Leku estrategikoa zen: heme- dik igarotzen zen, esaterako, Aramaiorako galtzada; eta ger- tutik, Arrazolatik, Asuntsatik igarotzen zen Urkiolatik Ara- maiorako errege-galtzada.

Pertsonen arteko harremanen ingurukoa ere bada nobela: giza harremanei eta botere har- remanei buruzkoa.

Bai, denetariko pertsonaiak eta harremanak agertzen dira: trai- doreak, diru gosea zeukatenak, serorak, etxagunak... Denak agertzen dira. Eta nobelaren ar- gumentuari intriga ematen diote euren arteko harremanek. Sa- soiko kulturen elkarbizitza era- kusten duten lau hizkuntzatan harremantzen dira pertsonaiak. Eta Durangaldeko esamoldeak eta lexikoa ere sartu ditut.

Liburua Txalaparta argitale- txeagaz kaleratzeko aukera zelan sortu da?

Liburuaren lehenengo bertsioa bidali nuen argitaletxeetara, eta Txalaparta argitaletxeok erant- zun zidaten gaia eta garaia inter- resgarriak iruditzen zitzaizkiela esateko. Baina zera galdetu zida- ten: “Hau zer da? Saiakera bat ala zer?”. Nobela egitea erabaki nuen une horretan, eta hainbat pertsonaia sortzeari ekin nion: horrela sortu nituen itsua eta se- rorak, esaterako.

Zure betiko belardenda

Barrenkalea, 28 | 946 817 918

Montse Sarriugarte | 'Pianoa naiz' kantu liburua egilea

“Balio handikoa iruditzen zait Ibonek libururako egin duen ilustrazio lana”

Sarriugarteren kanteak, eta Ibon semearen marrazkiek osatzen dute liburua



> MUSIKA Itsaso Esteban
Kantu liburua da 'Pianoa naiz'. Zeuk sortutakoak dira kanten letrak eta musikak ere. Bai. Durangoko Rock Izar eskolan dihardut pianoa jotzen ikasten, eta bertako Julio Veigas irakaslearen laguntzagaz konposaturikoak dira kantak. Letragaz

istorioa eraiki, eta soinuagaz eta isiltasunagaz jolasten sortu ditut abestiak. Nire zatitxo bat dago disko-liburu honetan gordeta: sentimentu hutsa da liburu hau.

Umeentzako testuak idaztea betidanik izan duzu gustuko?
Askok kosta zait kantu liburu ho-

netarako idatzitakoa erakustea. Orain urte eta erdi idatzitakoak dira bertako letrak. Aurretik, antzerkirako gidoiak idatzi izan ditut. Testu laburrak dira gehien gustatzen zaizkidanak.

Pianoa helduaroan ikasi duzu.
Bai, duela hamar urte inguru,

Madrilen bizi nintzela hasi nintzen pianoa jotzen ikasten. Oso gustuko dut, neure buruaren inguruko hainbat gauza ikasi ditut pianoari esker.

Liburuko ilustrazioak Ibon Quintano Sarriugarte zure semeak egindakoak dira.

Bai, eta benetan balio handikoa iruditzen zait Ibonek libururako egin duen ilustrazio lana: marrazki bakoitzak poesia bat dauka atzean. Berlinen bizi da, eta testuak bidali nizkionean bere interpretazioa egin zuen marrazkien bitartez. Oso ondo ulertu zuen nik testuekin eta musikagaz adierazi gura nuen.

Zer irakurlerengan pentsatuta idatzi duzu liburua?

Edozein adineko irakurleentzat dago idatzita: ume jaioberrietatik hasi, eta muga barik.

Azokan, non eskuratu ahalko da zure kanta liburua?

Gerediaga Elkartearen erakusmahaietan ipiniko ditugu ale batzuk azoka egunetan salgai.

Nondik datorkizu umeekiko hain hurbileko harreman hori?

Beti eduki izan dut umeekin lotura berezi bat: auzoko ume guz-

tiekin, betidanik; eta ikastoletan ordezkapenak egiten nituenean ere bai, esaterako. Erraztasuna eduki dut beti euren mundua ulertzeko. Eta eurek ni ere ulertzen nautela sentitu izan dut beti: komunikazio oso erraza izan dut umeekin bizitza osoan.

“Nire zatitxo bat dago kantu liburu honetan gordeta: sentimentu hutsa da liburu hau”

Zelan erantzun dute liburua ikusi edo irakurri, eta musika entzun duten umeek?

Etxeko umeen erantzuna ikusi dut orain arte, eta oso pozik nago: liburuari kontu handiz begiratu diote, eta liburuko pianoak bidaltzen dien mezua jaso dute: “Maite nazazu, ukitzen banauzu, soinu egingo dugu”.

Liburua aurkezteko emanaldi-rik egiteko asmorik baduzu?

Bai, gustatuko litzaidake liburukoa, bertatik bertara, antzezlan forman aurkeztu ahal izatea.

irakurri⁴

aldiz ARINAGO
DURANGO

prakagorri.es

944 91 57 63

GABONETAKO IKASTARO TRINKOAK

Ulermen jasoko irakurketa azkarra..... 9:00 - 10:30

Ikas-metodo eraginkorrak..... 11:00 - 12:30

Egunak:

22	23	24	25	26	27	28
29	30	31	1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11

Izen-emate epea: abenduak 18ra arte

Adinak:

Irakurketa: 9 urtetik aurrera


Ikas-metodoak: 11 - 15 urte

Barrenkalea 20, Durango | prakagorri@prakagorri.es

EPOCA

ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUGELAK -
ALTZARIAK - DEKORAZIOA

**Zuk nahi duzun etxea
egiten lagunduko dizugu.**



Madalenoste, 7
Tel.: 946 472 012
epoca@epocasukaldeak.com
48200 **DURANGO** Bizkaia

www.epocasukaldeak.com

jarrai gaitzazu Facebook-en!

f epoca.goro

San Juan, 5
Tel.: 943 700 216
20600 **EIBAR**
Gipuzkoa



ULERMEN JASOZ IRAKURRI

2014ko azaroaren azken igandea. Goizeko bederatziak ziren eguna goibel eta begioker zetorrela ikusi nuenean. Iparraldetik zetozen laino ugari eta ilunak zerua besarkatu eta gure larreak etengabe ureztatzen zituzten, Anbotok inguruko herrietako berri eta albisteez astero ureztatzen gaituen bezala.

Izatez, aurreko alean irakurritako albiste txiki eta labur batek zihoena oroitzuz, igande goizeko gogoaren astuna eta kemenaren leuna astindu asmoz, Otxandiora joatea erabaki genuen semeak eta biok.

Eguraldi lardatsa gorabehera, Arrese-Beitiaren jaioterrira hurbiltzeko erabakia, Anboton iragarritakoa irakurri ondoren, Otxandioko Udalak bere arkupeetan igande eguerdian ospatzea aurreikusita zeukan Liburu Azoka apal baina txukunera joateko gogo biziak eragindakoa zen.

Bertaratze horrek, orain berrogeita bederatzi urte, mutiko nintzala Durangoko Lehen Azokan izan nituen bizipen ugari eta atseginik gogorarazi zidan. Bizipenek eraginda buruan gordetzen ditugun irudiak dira gure oroimen guztien lekuko eta adierazle nagusi.

Bizipen guztiez baitaratzen gara; gogarako...hautatzen ditugunak besterik ez dira. Umetako bizipenak...indartsuago eta biziago zaizkigu; gogoratzeko xamur eta atseginago.

Mutiko nintzala, Anton Aurre, aita zenak, eskutik heldu eta Durangoko Andra Mari elizpean ospatutako lehen Euskal Liburu eta Diskoen Azokarako bidea erakutsi eta irakatsi zidan. Egun kopetilun eta euri-tsua ordukoa. Ondorengo urteetan zehar Azokara osterak nahitaezko ohitura bilakatu ziren. Gaztetako bizipen hunkigarria oso, Azokarekin lehendabiziko nire gaztetako bizipena. Atsegina eta urteen joanean sakon sustraitua.

Egunotan, Azokan hainbat

ekitaldi, jarduera, hitzaldi eta beste ekarpen interesgarri asko eskura izango ditugun arren, beste hainbatetan bezala, liburuak izango dugu nagusi. Liburuak, norbaitek zerbait komunikatzeko helburuz idatzitako hizkera dugu, eta irakurketaren arrakasta egileak besteren-ganatzeko duen informazio guztia irakurleak zein mailatan jasaten duenaren arabera izango da.

Trebetasun intelektualen bikaintasuna lortzea geure esku dago

Irakurketa metodo zaharkituak ez du irakurzaletasuna sustatzen

Liburuaren eta burmuinaren artean bi erlazio mota daude. Erlazio bi horiek liburuak irakurtzean izan daitezkeen bi esperientzia desberdinak azaltzen dizkigute.

Liburuaren orrialdeak igaro ahala, esan lez, esperientzia mota bi gerta daitezke: Egileak adierazten digun guztia ulertzea edo irakurritakoa ulertu ez egitea.

Irakurritakoa ulertzen baldin bada, litekeena da irakurritakoa ondoz ondoz informazioa jasotzea baina agian ulermenean hobekuntzarik ez izatea. Liburuak, lehen orrialdetik ulergarri bilakatzen baldin bada, orduan egilea eta irakurlea sin-tonia maila berean daudela adieraz liteke. Orrialdean azaltzen diren sinboloak [hitzak] irakurleak eta idazlea [liburuak bitarte] elkar ezagutu aurretik adimen bereko zirenenaren adierazle dira.

Irakurritakoa bere osotasunean ulertzen ez denean edota ulertzen ez denaz jabetzeko lain ulertzen dugunean, zoritxarrez

beti gertatzen ez dena, zer egin? Bi aukera ditugu eskura: ulertu ez diren atalak hirugarren bati azaltzea eskatu edo dena ulertu ez den arren, molestia gehiagorik hartzerik merezi ez duela erabaki eta...ulertutakoaz gustura gelditu.

Aipatu kasu biotan, irakurleak ez du liburuak eskatzen duen irakurketa-ekintza burutzen, lan hori era eta modujakin baten besterik ezin egin daitekeelako, hau da: inolako kanpo-laguntzarik gabe, liburuan adierazitakoak lantzen jarraituz, liburuak adierazten digun informazioa jorratu eta bertan azaldutako edukia bere osotasunean ulertzera heltzeko liburuarekin batera elkarlanean arituz.

Liburu batek aurkezten digun edukia bere osotasunean ulertzean burmuinaren beraren gaitasunez ulermen maila txikiagoa den egoera batetik ulermen maila handiago baterako bidea lantzea lortzen da.

Liburuak lantzean buruak lortzen duen hobekuntza horrek irakurketan trebetasun maila jasoa izatea dakar eta ondorioz, irakurlearen ulermenari erronka gisa aurkezten zaion edukia-ri zor zaion irakurketa mota garatzen da.

Irakurketaren eremuan egingdako ahalegin intelektualaren bitartez gutxiagoko ulermen maila batetik maila jasoago batera igarotzeak lan asko, neketsu eta unagarria eskatzen du. Dena den, informazioa jasotzeko edota ulermena lortzeko irakurketan artean bada desberdintasun sakonik.

«Irakurketa» hitza bi esanahi adierazteko erabil dezakegu.

Lehen esanahiak, bakoitzak beren-bereki dituen gaitasun eta trebetasunen arabera, irakurriaz batera erabat ulergarri zaizkion astekari, egunkari edo aldizkariak irakurletzat norbere burua jotzea dakar.

Irakurketa mota horrek gure informazio kopurua ugartzen lagun liezaguke baina ez gure

ulermen maila gehitzen, jasotakoa informazioa besterik ez baita. Bestelako kasuetan, zerbaitek goitik jotzen gaituenean sorrarazten dizkigun zailtasun eta zailtasunak genituzke.

Bigarren esanahia, hasieran guztiz ulergarri ez dugun irakurgaia irakurtzeko ahalegina egitean datza. Irakurlea eta idazlea plano desberdinetan azaltzen dira. Irakurri beharreko gaia irakurlearen ulermenaren goitik dago eta idazleak irakurlearen ulermena hobetzea lor dezaken idatziaren berri ematen du.

Maila berdinean ez dauden bi alde horien [idazlea eta irakurlea] arteko komunikazioak posible izan behar du. Bestela inork besteengandik ezin ezer «ikasi» izango luke, ez ahozko hizkeraz ez idatzizko adieraz.

«Ikasi» hitzez, «ulermen maila nabarmenagoa izan» esan nahi da eta ez beste informazio batzuekiko jadanik dugun ulermen maila berdineko informazio gehiago gogoratzeko.

Irakurlerik gehienek duten ulermena errotik aldatu eta maila jasora eramateko urratsak eman behar dira irakurle eraginkor geure burua bihurtu nahi baldin badugu behintzat. Irakurtzen dakian edozeinek uste du bere irakurgaitasunaren osasun onak ez duela hobetze jarduerarik behar. Uste okerra.

Beraz, hobe litzateke bakoitzak duen irakurketarako gaitasuna aztergai jarri eta hobetzeko neurriak hartzen joatea. Guztiok dakigu irakurtzen baina salbuespenik gabe, gure ahaleginaren bitartez [horretarako gertu geundeken ikusi beharko] askoz hobeto, eraginkortasun gehiagorik eta ulermen maila bikainez irakurtzen ikasi dezakegu eta horrelakorik egitea beharko litzateke.

PRAKAGORRIIn, luzaroan dugun esperientziagatik eta irakurketa eta ulermena maila gorenentara jasotzeko diseinatu eta sortutako ULERMEN JASOKO IRAKURKETA AZKARRA metodologiaz, pertsona ororen egungo irakurketa-ohitura eta

gaitasunak errotik aldatuz goi mailetan kokatzen ditugu.

Irakurlerik gehienek, pentsatzen dutena baino ulermen maila urriagoa dute. Gehiengoaren irakurketa maila, besteak beste, geldoa, berrirakurketa-eragile, ulermen eta atentzio urriko eta kontzentrazio maila txikiaren eragile da.

Ohiko irakurketa ez da erakargarria, irakurketarako gogo gutxi sortzen du eta era horretan irakurritik lortzen den ulermen maila urrirako, ahalegin gehiegi dakar.

Esandakoaz gainera, gogoan izan beharreko beste datu ohargarri bat, hauxe: zenbat eta adinean gorago, irakurketarako joera gero eta urriago. Urteen joanean, irakurketa egonean.

Hainbatetan esan dugu PRAKAGORRIItik, gizakiaren heziketa, bere garapen intelektual eta kultura maila, irakurritakoa arabera izaten dela.

Zoritxarrez, irakurketa klasi-koa, irakurle ia denak darabilen irakur-molde zaharkitu eta aje ugariz josia, ez da eraginkortasunez irakurtzeko modu eta bide egokia. Irakurketarako ohitura bikainik sortzea ezinezko bihurtzen da irakurketarako grina aldeaz aurretik pizten ez bada. Herriarregian dagoen irakur-metodoa errotik aldatzeko neurriak hartzen ez badira gutxi eta nekez irakurtzen jarraituko dugu. Beraz, irakurketa-metodo zaharkitua errotik aldatzeko neurriak hartu ez ditzagun bitartean, arazo larriak eta frustrazio ugari sortuko da, bereziki ikasle direnen artean.

Gaur inoiz baino gehiago, argumentu ugari ditugu, guztiak oso indartsu eta adierazgarriak, frekuentzia goreneko irakurketa ohiturez kontzientziatu, eta berezitasunez gure bizitzan ohitura horiek ezartzearen garrantzia adieraztera datozkigunak.

PRAKAGORRIItik irakasten duen ulermen jasoko irakurketa azkarrerako metodologia ikasi eta praktikatzeko irakurgaia- ren konplexutasunaren arabera irakurketa-abiadura, erritmoa eta goi mailako ulermena lortu, irakurgaiak bizkor irakurri eta edukiaz erabat jabetu eta kontzentrazio maila bikaina izatea dakartza.

Gure gaitasunak uste ditugunak baino askoz handiagoak dira. Gaitasunok garatu eta bikainagoak izatea gure esku besterik ez dago, baina horretarako ahalegin nahiko egin behar da eta gehienetan gauza berriez jabetzeak eskatzen digun ahalegina egiteko gogo eta kemena baino ez egiteko aitzakia gehiago izaten dugu.

**Gorka Aurre
PRAKAGORRI**

**irakurri 4
ALDIZ ARINAGO**

Hobeto egizuz zure irakurketa-abiada eta ulermena!
Errotik aldatuko dozuz zure irakurketa-gaitasunak.
Irakurketa-abiada handia eta ulermen bikaina.



PRAKAGORRI
Reading skills

94 491 57 63
DURANGO

Barrenkale 20

prakagorri@prakagorri.es

9 urtetik aurrera, adin muga barik, PRAKAGORRI dozu zure eta zure semeen urtenbide

Hamabi ikasleren lanetik, ‘Klarinete zaharra’ liburua, belaunaldiartekotasunari buruz

Lauaxeta ikastolako ikasleek idatzitako nobela autoekoizpenen gunean egongo da eskuragarri



Liburuaren egileak, urrian BECen egindako aurkezpenean.

> LITERATURA Amaia Ugalde Euren aitita-amamen belaunaldiari buruzko nobela kaleratu dute Zornotzako Lauaxeta ikastolako ikasleek. *Klarinete zaharra* liburuan, Emilio fikziozko pertsonaiaren istorioa kontatu dute hamabi kapitulutan. Hamabi zati dira, hamabi ikasleek

idatzi dutelako. Batxilergoko eta DBHko ikasleak ibili dira burubelarri proiektuagaz. Nahikari Yubero eta Iban Auzokoa irakasleak eduki dituzte koordinazioan laguntzaile.

Azken urteotan belaunaldiartekotasuna lantzen ibili dira Lauaxetako ikasleak, eta

horrela jaio da nobela idazteko ideia. 2012an Francisco Javier Landaburu Civis saria irabazi zuten. Sariketa horren bidez, ikasgeletan garatzen diren bazterkeriaren kontrako ekimenak saritzen dira, eta ikastolako ikasleek belaunaldien arteko harremanei buruzko proiektu

bat aurkeztu zuten. Belaunaldiartekotasuna lantzeko bost ekintza proposatu zituzten bertan, eta ekintzetako bat zen gaia-ri buruzko liburua idaztea.

Liburua urriaren 17an aurkeztu zuten, BECen antolatu zuten Nagusi Azokan, eta Durangoko Azokan autoekoizpeneko atondu duten gunean egongo da eskuragarri. Ikasleek idazle baten prozesua zelakoa den

ikasleek Emilio fikziozko pertsonaiaren istorioa kontatu dute hamabi kapitulutan

ikasi ahal izan dute: liburuaren prestakuntza eta aurkezpena eginga dute dagoeneko; orain promozio prozesuan daude.

Aitita-amamei elkarrizketak Ane Atxutegi batxilergoko ikaslea da idazleetako bat. Oso pozik dago emaitzagaz: “Duela bi urte esan izan bazenit, ez nizun sinistuko”, dio. “Nahiko harrituta gaude denok, oso ondo irten delako liburua. Itzela da etorkizunerako hor geratuko dela ikustea”.

Batxilergoko eta DBHko ikasleen artean sortu dute *Klarinete zaharra*. Emilioren bizitzako pasarte asko ikasleen aitita-amamek kontatutakotik irten dira: “Batxilergoko ikasleok galderak prestatu genituen, eta DBHkoek aitita-amamak elkarrizketatu zituzten”. Informazio horregaz, adibidez, belaunaldi horren umezaroa, gerra urteak eta eskola garaia zelakoak izan ziren ikusi ahal izan dute, eta Emilioren bizitzara eroan.

Eskola orduetatik kanpo egindako beharra izan da, eta ikasleen idazlanak Iban Auzokoa euskara irakasleak eta Nahikari Yubero gaztelania eta literaturakoak koordinatu dituzte. Idatzitakoari zuzenketak egin, eta liburuari hari bat emateko koordinazio lana egin dute bi irakasleek.

A. Atxutegi: “Batxilergoko ikasleok galderak prestatu genituen, eta DBHkoek aitita-amamak elkarrizketatu zituzten”

Beldurrak gainditzeari buruz, Leire Bilbaoren azkena

‘Itsasoa edan dut’ eta ‘Doministripu jauna’ liburuak idatzi ditu Bilbaok



‘Itsasoa edan dut’ liburuaren azala.

> HAUR LITERATURA A.U. Zelan jakin zelakoa den zerbait probatu aurretik? Galdera horretatik abiatzen da Leire Bilbaoren (Ondarroa, 1978) *Itsasoa edan dut* liburua. Maddik itsasoaren hondoari beldurra dio, baina probatu arte ez du jakingo bertan zer dagoen.

Irakurtzen hasten dabiltzan umeentzat prestatu du Bilbaok beldurrak gainditzeari buruzko istorio hau. *Itsasoa edan dut* liburuko ilustrazioak, berriz, Enrique Morentek egin ditu. Ibaizabal argitaletxeak argitaratu du liburua, Txirrita bildumaren barruan.

‘Doministripu jauna’

Udaberrian, Antton Olariaga ilustratzaileagaz batera, *Doministripu jauna* liburua kaleratu zuen Leire Bilbaok, eta Elkar argitaletxearen erakusmahaiaren egongo da eskuragarri.

Gauza bitxiak gertatzen zaizkio Doministripu jaunari: doministiku egiten duen bakoitzean, bere inguruan istripuak gertatzen dira, eta herrian bere beldur dira; badaezpada, bera joaten den lekutik urrun ibiltzen dira auzokideak. Protagonistak katarro kronikoari aurre egiten lagunduko dion ume bat ezagutuko du liburuan.

Azken hiru urteotan haur literaturako lanak egiten dabil Bilbaok, eta lan erritmoagaz gustura dagoela azaldu du: “Ez naiz idazle profesionala, eta, azken batean, lan egin eta gero, ahal dudana heinean, egunari orduak kenduta idazten dut”. 2015erako beste proiektu bat dauka esku artean, eta ez dio helduen literaturari uko egiten: “Etorriko da”.

Implanteak jarri

eta hurrengo egunean PROTESI BERRIAREKIN mastekatu ahal izango duzu

ORAIN PROTESIA BEREHALA KARGATZEN ZAIEN INPLANTEEZ GOZATU AHAL IZANGO DUZU

BETI ZURE KIRURGIAREN SEGURTASUNAREKIN, 1 mm ARTEKO EBAKETAK (3D) EGITEN DITUEN HORTZETAKO 3D ESKANERRARI ESKER

15% -rainoko DESKONTUAK

WEB GUNEKO TARIFETAN

Kontsultatu gure tarifak hemen:

www.clinicaekoden.com

* 36 hilabete baino gehiagorako finantzaketarako.

AHOTSENEAKO EGITARAUA

ABENDUAK 5, BARIKUA

ZUZENEGOEN KARPA

11:00 Revolta Permanent. Solasaldi musikatua. Ikasleei zuzenduta.

11:40 Las 2 D/ Bi Deak. Disko berria aurkezten.

12:20 Sustrajah Band. 'Hazia' diskoa aurkezten.

13:00 Baliteke. 'Azeriak' diskoa aurkezten.

13:40 Biluzik. 'Kontzertua' diskoa aurkezten.

14:20 Big Boy. 'Big Boy' diskoa aurkezten.

15:00 Xaiko. 'Therapy' diskoa aurkezten.

15:40 Sardeska. 'Sardeska' diskoa aurkezten.

16:20 Eskean Kristö. 'Azote Kaldüz' diskoa aurkezten.

17:00 Skakeitan. 'Orekariak' diskoa aurkezten.

17:40 Revolta Permanent. 'Genesis' diskoa aurkezten.

18:20 En tol sarmiento. 'Zure mundua' diskoa aurkezten.

19:00 AIN_1. 'Badoa badirau' diskoa aurkezten.

19:40 Enkore. 'Kanala' diskoa aurkezten

SOLASALDIEN KARPA

11:30 John Andueza. 'San Ferminetan, Lesakan' liburua aurkezten. Ikasleei zuzenduta.

12:15 Gorka Belasko. 'Gaur egungo beHlak. BeHln betiko hausnarketa' liburua aurkezten.

13:00 Entzun!. 'Entzun!' liburu eta diskoaren aurkezpena (64. zbk).

13:45 Ernesto Prat. 'Orpoz orpo' liburua aurkezten.

15:30 Eric Dicharry. 'After Banksy' liburua aurkezten.

16:15 Jon Elizalde. 'Berpizkunde garaiko euskal musikagileak' diskoa aurkezten.

17:00 Yolanda Arrieta. 'Argiaren alaba' liburua aurkezten.

17:45 Pako Aristi. 'Euskararen isobarak' liburua aurkezten.

18:30 Antonio Casado da Rocha. Poesia errezitaldia Oier Guilanegaz batera 'Islandiera ikasten' liburua aurkezteko.

ABENDUAK 6, ZAPATUA

ZUZENEGOEN KARPA

11:00 Berri Txarrak. 'Denbora da poligrafo bakarra' diskoa aurkezten.

11:40 Anger. 'Sute perfektua' diskoa aurkezten.

12:20 Iheskide. 'Borrokak darrai' diskoa aurkezten.

13:00 Tania de Sousa. 'Taniatank' diskoa aurkezten.

13:40 Gosariak. 'Gosariak' diskoa aurkezten.

14:20 Altxatu. 'Hitza' diskoa aurkezten.

15:00 Patxuko Nice. 'Toc toc toc' diskoa aurkezten.

15:40 Lurra. 'Akatsa sisteman' diskoa aurkezten.

16:20 Damba. 'Damba Cubadisco' diskoa aurkezten.

17:00 Itziarren Semeak. 'Revolta' diskoa aurkezten.

17:40 Juantxo Skalari & La Rude Band. 'Rude Stations' diskoa aurkezten.

18:20 KX. 'KX' diskoa aurkezten

19:00 Mitosia. 'Tabula Rasa' diskoa aurkezten.

19:40 Izeberg. 'Azalera' diskoa aurkezten.

SOLASALDIEN KARPA

11:15 Fito Rodriguez. 'Gontz garaia' liburua aurkezten.

12:00 Jose Luis Otamendi. 'Kapital publikoa' liburua aurkezten.

12:45 Alaine Agirre. 'Odol mamituak' nobela aurkezten.

13:30 Lander Garro. 'Gerra txikia' nobela aurkezten.

15:30 Juan Ramon Makuso. 'Hitzak argi' liburua aurkezten.

16:15 Juan Mari Beltran. 'Hots larretan' diskoa aurkezten.

17:00 Itxaro Borda. Poesia errezitaldia, 'Zure hatzaren ez galtzeko' liburua aurkezteko.

17:45 Unai Elorriaga. 'Iazko hezurrak' liburua aurkezten.

18:30 Danele Sarriugarte. 'Erraiak' liburua aurkezten, Jule Goikoetxeagaz eta Kattalin Minerregaz batera.

ABENDUAK 7, DOMEKA

ZUZENEGOEN KARPA

11:00 Kherau. 'Aukhera' diskoa aurkezten.

11:40 Maialen Errotabehere. 'Biluzik' diskoa aurkezten.

12:20 Mondocane. 'Misterioa' diskoa aurkezten.

13:00 Emon. 'Sua' diskoa aurkezten.

13:40 Imanol Epelde. 'Etxepare rap' aurkezten.

14:20 Amaia Riouspeyrous. 'Milaka' diskoa aurkezten.

15:00 Perlak. 'Perlak' diskoa aurkezten.

15:40 Mocker's. 'Percute Animas' diskoa aurkezten.

16:20 Hainbat ohe huts. 'Hainbat ohe huts' diskoa aurkezten.

17:00 Tximeleta. 'Mugitu' diskoa aurkezten.

17:40 Jon Gurrutxaga. 'Hitz lauz' diskoa aurkezten.

18:20 Demode Quartet. 'Epa!' diskoa aurkezten.

19:00 Beñat Igerabide. 'Orbainak' diskoa aurkezten.

19:40 Ezinean. 'Berriz' diskoa aurkezten.

SOLASALDIEN KARPA

11:15 Ataramiñe. Mixel Sarasketagaz Ataramiñeren liburu berrien aurkezpena.

12:00 Hasier Oleaga. 'Cantuz Caterva II' diskoa aurkezten.

12:45 Patxo Telleria. 'Pankreas. Gaur egungo tragikomedia bertsoz paratu'.

13:30 Markel Ormazabal. 'Hemen naiz, ez gelditzeko baina' liburua aurkezten.

15:30 Marikita Tambourin. 'Emazte izenak' liburua aurkezten.

16:15 Hasier Larretxea. Solasaldi-performancea, 'Larremotzetik' liburua aurkezteko.

17:00 Xabi Solano. 'Xabi Solano, trikitixa liburua' diskoa aurkezten.

17:45 Ana Urkiza. 'Mamuak' liburua aurkezten.

18:30 Garazi Kamio. 'Orube abandonatuak' liburua aurkezten.

ABENDUAK 8, ASTELEHENA

ZUZENEGOEN KARPA

11:00 Behi bi blues. 'Behi bi blues' diskoa aurkezten.

11:40 Kraussk. 'Gudaberria' diskoa aurkezten.

12:20 Libe. 'Ihesaldi handia' diskoa aurkezten.

13:00 Markos Untzeta. 'Seinaleak' diskoa aurkezten.

13:40 Guda dantza. 'Lainoak eta oskarbiak' diskoa aurkezten.

14:20 Haxotz. 'Islada' diskoa aurkezten.

15:00 My Panda Shall Fly (Asier Leatxe & Suren Seneviratne). 'Tropical' diskoa aurkezten.

15:40 22M2. 'Karratura' diskoa aurkezten.

16:20 Bidelapurak. 'Zenbat negar bazterretan' diskoa aurkezten.

17:00 ON. 'Zein' diskoa aurkezten.

17:40 D-PINTXOS. 'Ahotsak' diskoa aurkezten.

18:20 Voltaia. 'Voltaia' diskoa aurkezten.

19:00 Kezkak. 'Kezkak' diskoa aurkezten.

19:40 Inun. 'Berreginez' diskoa aurkezten.

SOLASALDIEN KARPA

11:15 Jon Arretxe. 'Hutsaren itzalak' eta 'Beti iparralderantz' liburuak aurkezten.

12:00 Irati Goikoetxea. 'Andraizea' ipuin-bilduma aurkezten.

12:45 Tiikita Rekalt. 'Mula Nazrudin eta...' liburua aurkezten.

13:30 Eider Rodriguez. 'Itsasoa da bide bakarra. Sarrionandia irakuriz' saiakera aurkezten.

16:15 Mikel Bizar & Athletic eta Kitto. 'Athletic gu gara' aurkezten.

15:30 Joseba Irazoki. 'Joseba Irazoki eta lagunak' diskoa aurkezten.

17:00 Ibon Uribarri. 'Mihia aske' liburua aurkezten.

17:45 Xipri Alberbide. 'Euskal elizaren historia' liburua aurkezten.

18:30 Ana Jaka. 'Ez zen diruagatik' liburua aurkezten.

katerin ardoak
iñaki uribe
saltsan

Eguneko menuak - Asteburueta menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

momotx
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: 946 811 006

Arriike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Ahotseneak espazio bi edukiko ditu 90 sortzailereren lanak erakusteko

Ahotseneak musika eta literatura modu bizian eskainiko ditu aurten ere



Berri Txarrak taldea izango da Ahotseneako partaideetako bat.



Jon Arretxek aurten ere liburu aurkeztuko du Ahotsenean.

> ZUZENEOAK M. Onaindia

Zer hoberik erosi gura duzun liburu edo diskoa zuzenean probatzerik baino? Ahotseneak izaera freskoa ematen dio Durangoko Azokari, musika eta literatura modu bizian jasotzeko eremu bat delako. Erosketa egin aurretik zuzeneko ikusi ahal duzu, edo ikuskizunetara joan eta ezagutzen ez duzun sortzailereren bategaz kateatu zaitezke. Aurten espazio bi edukiko ditu, eta, guztira, 90 sortzailek erakutsiko dituzte euren lanak.

Iaz Ahotsenea gaztetxearen parean egon zen, eta leku horrek hartuko du musika emanaldien karpa. Liburuen inguruko solasaldietarako, oster, Elkartegi alboan bigarren karpa bat ipiniko dute. Lutxo Egia Ahotseneako koordinatzaileak azaldu duenez, izena eman duten artista guztiei lekua egiteko erabaki dute aurten karpa bi ipintzea. Izan ere, irailaren 15ean hasi zuten izen-ematea, eta egunean bertan bete zen egutegia: hainbat sortzaile leku barik geratu ziren. Horrela, iaiztik martxan zegoen gogoeta bati bide eman diote.

“Guretzat lehentasuna zen sortzaile guztiei aukera ematea”, dio Egiak. Horrela, “eskaintza errealagoa eta orekatuagoa” emango dutela uste du.

90 emanaldi

55 kontzertu eta 35 aurkezpen eskainiko ditu Ahotseneak abenduaren 5etik 8ra bitartean. Beraz, 90 emanaldi egongo dira beste hainbeste sortzailereren es-

Aurkezpenetarako eta solasaldietarako karpa bat ipiniko dute Elkartegi alboan

Izena eman duten artista guztiei lekua egiteko erabaki dute aurten karpa bi ipintzea

kutik. Inskripzioa librea denez, hamaika koloreko eskaintza sortzen da, estiloa eta moldeak kontuan hartuz gero. Barikuan Revolta Permanent hip-hop taldeak, Las 2 D/Bi Deak kuba-tarrak eta Enkore rockzaleak egongo dira, besteak beste, musikaren karpan. Solasaldietan

Entzun aldizkarikoak eta Pako Aristi ariko dira. Zapatuan Berri Txarrak musika taldeak zabalduko du eguna, *Denbora da poligrafo bakarra* diskoa aurkezteko. Elorrioko Iheskide taldeak ere joko du euren zaleen aurrean. Fito Rodríguez eta Danele Sarriugarte izango dira, berriz, solasaldietako sortzaileetako bi. Domekan, Durangaldeko Mocker's eta Maialen Errotabehere igoko dira Ahotseneako taulara, eta Xabi Solanok eta Patxo Telleriak bigarren karpan berba egingo dute. Astelehenean, *Inun* bakarlarri zornotzarra eta On musika taldekoak gerturatuko dira, baita Jon Arretxe eta Eider Rodríguez idazleak ere.

Urteko emaitza

“Urteko emaitza formatu ugari-tan aurkezteko leku bat” izango da aurten ere Ahotsenea, Egiaren esanetan. Hain zuzen ere, izaera horrek eragina eduki du Durangoko Azokan, eta bestelako guneen sorreragaz aldaketa nabaria izan du azken urteetan. Koordinatzailearen ustez, “guneen ereduagaz azokaren gaine-ko pertzepzioa aldatu da”.

Gainera, Egiaren iritziz, “sortzaileek aukera gisa ikusten dute Ahotsenea”, hasiberria edo esperientziaduna izan, zaleekin tratu zuzenagoa edukitzeko aukera ematen dielako.

Etorkizuna margotzen

EGUTEGI ETA ORDUTEGI MALGUA
7:30-19:00
BAKOITZAREN ERRTIMORA EGOKITUTA

20 URTE ZUREKIN PROFESIONALITASUNA ETA ESPERIENTZIA

INGELES
12 HILABETETIK
FRANTSES
ALEMANA

Irakasleon Kooperatiba San Antonio Santa Rita Ikastetxea

Balbino Garitaonaindia 3, DURANGO / T.94 681 67 76 F.94 681 41 61
www.sanantonio-santarita.com / ikastetxea@sanantonio-santarita.com

METODOLOGIA BERRIAK
TXOKAK
JOLAS HEURISTIKOA
ALTXORAREN OTZARA
ZENTZUMENAK GARATZEN
HAURRENTZAKO MASAJEA
ERLAJAZIOA
IRITENALDIAK
ZENTZUMEN GUTZIEN GASTAKERAZIOA

Euskadi 2013

Eguberrian, zerbait hunkigarria eskatu

EROSKI bidaiak

Ametsetan? Egizu legan!



Prezio onena beti

600 profesional baino gehiago ari dira lanean zure ametsak handi bihurtzeko, prezio txikietan.



Berehalako irtenbideak norakoan

Overbooking? Arazoak logelarekin? ... Norakoan arreta eskaintzeko zerbitzua urteko egun guztietan.



Travel Puntuak opari

Zure bidaiarekin, 3 puntu erositako 6 euroko eta aparteko puntuak norako askotan.



Hiru hilabete interesik gabe

Eta komisiorik eta gasturik gabe. Orain gozatzeko eta pixkanaka ordaintzeko; Eroski Red txartelarekin. Eska ezazu, doakoa da.



170 bulego baino gehiago eta on-line erosteko bi web-orri

Zuk erabaki dezakezu, arreta bulegoan edo on-line erosteko gure web-orriak: viajeseroski.es eta escapateviajes.es



On-line erreserbatu zure bulego gustukoenean

Nahi izanez gero, on-line ordaindu dezakezu bidai gustukoan duzun bulegoan. Behar duzun horretan aholkuak jasotzeko.



Sorkuntzagaz jolastuz, transmisioa lantzeko Durangoko Azokako gunea

Berbaro elkarteak kudeatzen du umeei eta gurasoei zuzenduriko Saguganbara



Ahozkotasuna lantzeko hainbat ekintza izango dira haurrei eta gurasoei zuzendutako Saguganbara gunean.

> TRANSMISIOA **Itsaso Esteban**
Gu ere sortzaile eta *Egun batez idazle* izenburuko tailerrekin abiatuko dute, gaur, lau egunetako programazio oparoa Saguganbaran, txikien eta handien gunean. Durangoko Azokako Ikasleen eguna da gaurkoa, eta Oskar Estanga bertsolaria eta

Yolanda Arrieta idazlea izango dira aipaturiko tailer horien gidariak. Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleei zuzenduriko hiru saio gidatuko ditu Estangak: kanta baten grabazioa landuko dute umeei *Gu ere sortzaile* taile-

rrean. Literaturara eta idazketa-
ra jolas giroan hurreratuko dira, ostera, Arrietak eskainiko duen *Egun batez idazle* tailerrean. Mintzola Fundazioagaz elkarlanean antolatu ditu aurten-
go ekintzetariko asko Saguganbara kudeatzen duen Durango-

ko Berbaro euskara elkarteak. Gurasoek eta umeei kulturagaz goza dezaten atonduriko gune bitan –areto handian eta txikian– abenduaren 8ra arteko egitarau zabala antolatu dute. Hizkuntzaren transmisioaren eta ahazkotasunaren arloetan indar berezia egin gura izan dute Saguganbaran, 49. Durangoko Azokako egitaraua diseinatzerakoan. Euskararen ahazko tradizioetik abiatuta, gaurko gizarteak ahazkotasunaren arloan dauzkan premiei erantzutea da Mintzola Fundazioaren helburua, eta bide horretan antolatu dituzte hainbat ekintza Saguganbaran ere.

Mintzola Fundazioagaz kolaboratu du Berbarok Saguganbarako hainbat ekintza antolatzeko

Mintzola Fundazioaren esku-
tik hiru saio izango dira bihar: *Ipuinak bertsotan* izenburuko tailerra gidatuko du Nerea Elustondo bertsolaria, eta inprobisazioari buruzko bi saio egingo dituzte Eñaut Gantxegi antzerkigileagaz. Areto txikian izango dira hitzordu biak. Ahazko

transmisioan eragiteko helburuz, beste hiru ekintza ere eroango dituzte Berbarok eta Mintzolak Saguganbarara: 6 eta 9 urte arteko umeei Itxaso Paia bertsolariagaz jardungo dira saio bat prestatzen, bihar. Domekan, berriz, *Kulunkantauri k@ntakizuna* ikuskizuna eskainiko du Ibai Esoain bertsolaria; eta Begoña Alabazan kontalariaren eskutik, 3 urte arteko umeen-
tzat, ipuin saioa eskainiko dute astelehenean.

Egunero sorkuntza tailerrak, ipuin kontalarien saioak eta musika emanaldiak hartuko ditu, besteak beste, Saguganbara gunek. Gainera, azokan aurkeztuko diren haur eta gurasoentzako hainbat liburu eta diskoren aurkezpenetara ere batuko dira Saguganbaran. Gaur, adibidez, *Pirritx, Porrotx eta Marimototsen* sorkuntza berrien aurkezpena hartuko du Saguganbarak. Areto handia txiki geratuko da, seguru.

Haur literaturako hainbat argitalpen aurkeztuko dituzte gune honetan: *Ez dut irudimenik, eta zer?*, *Ilargian kulunkantari*, *Maddi euskal piratekin*, *Txomintxo eta Perutxo Iosuri fardela aldatzen*, *Hiltzaileak* eta *Marikalanbre bizitzaren laborategian*, esaterako.

SAGUGANBARAKO EGITARAUA

ABENDUAK 5, BARIKUA
ARETO HANDIA
10:30 ‘Gu ere sortzaile’. Oskar Estangagaz kantu bat grabatu. Ikasleei zuzendutako hiru saio.
15:00 Liburu erraldoiaren sari banaketa.
17:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Familia osoarentzat.
18:30 ‘Xaldun Kortin, jolastu gurekin!’ 0-5 urte eta gurasoak.
ARETO TXIKIA
10:30 ‘Egun batez idazle’. Yolanda Arrieta. Ikasleei zuzendutako hiru saio.
*Gainontzeko tarteetan irakurketa librea: 2014ko argitalpenak eta 2013ko liburu gomendagarriak.
ABENDUAK 6, ZAPATUA
ARETO HANDIA
11:00 ‘Gai-jartzaile’. Tailerra. 6-12 urte eta gurasoak. Itxaso Paya, Beñat Vidal eta Izar Mendiguren.
12:00 ‘Irene eta lagunak’. Ipuin kontaketa. 4-10 urte eta gurasoak.
13:00 ‘Ez dut irudimenik, eta zer?’. Ume eta gurasoak. Noemi Gallego eta Leire Salaberria.
14:00 ‘Ilargian kulunkantari’. 0-5 urte eta gurasoak. Xabier Olaso.
15:00 ‘Gaueko enziklopedia koxkorra’. Ume eta gurasoak. 2princesesbarbudes.
16:00 ‘Maddi euskal piratekin’. 8-10 urte eta gurasoak. Fernando Morillo eta Mikel Mendibil.
17:00 ‘Txomintxo eta Perutxo Iosuri fardela aldatzen’. 2-8 urte eta gurasoak. Txomin Magdalena, Peru Magdalena eta Iosu Mitxelena.
18:00 ‘Txirrista’. 6 urtetik aurrera eta gurasoak. Idazle eta ilustratzaileak.

19:20 ‘Txorotxaranga’. Musika ikuskizuna. 2-10 urte eta gurasoak.
ARETO TXIKIA
11:00 ‘Ipuinak bertsotan’. Tailerra. 6-9 urte eta gurasoak. Nerea Elustondo.
12:00 ‘Ipuinak bertsotan’. Tailerra. 6-9 urte eta gurasoak. Nerea Elustondo.
16:00 ‘Inpro Matx gaztea’. Tailerra. 6-12 urte eta gurasoak. Eñaut Gantxegi Maritxalar.
17:00 ‘Inpro Matx gaztea’. Tailerra. 6-12 urte eta gurasoak. Eñaut Gantxegi Maritxalar.
18:15 ‘Albumak kontatzen familietan’. Ipuin kontaketa. 4-7 urte eta gurasoak. Pello Añorga.
ABENDUAK 7, DOMEGA
ARETO HANDIA
11:00 ‘Kulunkantauri’. K@ntakizuna. 6-12 urte eta gurasoak. Ibai Esoain.
12:00 ‘Behruz’. Tailerra. 6-10 urte eta gurasoak. Paxkal Bourgoin.
13:00 ‘Bibibil’. Haur kantak. 2-5 urte eta gurasoak. Josiane Agerre-Valencia eta Philippe Albor.
14:20 ‘Miru eta bere lagunak’. Ipuin kontaketa. 2-7 urte eta gurasoak.
15:00 ‘Egun on printzesa’. Tailerra. Gazte eta gurasoak.
16:00 ‘Izenak izana: Euskal Herriko ipuinak’. Ipuin kontaketa. 4-9 urte eta gurasoak. Eneko Haritza.
17:00 ‘Hiltzaileak’. 5 urtetik aurrera eta gurasoak. Leire Salaberria.
18:00 ‘Marikalanbre bizitzaren laborategian’. 6-8 urte eta gurasoak.
19:20 ‘DJ Porru’. Ikuskizuna. 2-10 urte eta gurasoak.

ARETO TXIKIA
11:00 ‘Liburu bat, mundu bat’. Tailerra. 0-3 urte eta gurasoak.
12:00 ‘Liburu bat, mundu bat’. Tailerra. 4-6 urte eta gurasoak.
16:00 ‘Arkeologoa egun batez’. Tailerra. 6-12 urte eta gurasoak.
ABENDUAK 8, ASTELEHENA
ARETO HANDIA
11:00 ‘Luma’. 3-5 urte eta gurasoak. Izaskun Erostarbe, Ainara Azpiaz eta Gessami Forner.
12:00 ‘Pupu eta Lore euskaraz jolasten!’. Aplikazioa. Ume eta gurasoak.
13:00 ‘Araitx, Ixone eta Unai ahateen parkean’. Ipuin kontaketa. 1-10 urte eta gurasoak. Stop Sanfilippo.
15:30 ‘Ipuin lapurra’. Txotxongiloak. Ume eta gurasoak. Toni La Sal.
13:00 ‘Araitx, Ixone eta Unai ahateen parkean’. Ipuin kontaketa. 1-10 urte eta gurasoak. Stop Sanfilippo.
15:30 ‘Ipuin lapurra’. Txotxongiloak. Ume eta gurasoak. Toni La Sal.
17:00 ‘Okzitaniako ipuin zaharrak’. Ipuin kontaketa. 5 urtetik aurrerakoak eta gurasoak. Maite Franko.
ARETO TXIKIA
11:30 ‘Arkeologoa egun batez’. Tailerra. 6-12 urte eta gurasoak.
17:00 ‘Egunik garrantzitsuena’. Tailerra. 0-3 urte eta gurasoak. Begoña Gomez.
18:00 ‘Egunik garrantzitsuena’. Tailerra. 0-3 urte eta gurasoak. Begoña Gomez.
*Gainontzeko tarteetan irakurketa librea: 2014ko argitalpenak eta 2013ko liburu gomendagarriak.

‘Txapeldun’, esfortzuaren gaineko lana estreinatuko dute Szenatokian

Zapatuan antzezlan zatiak ikusi, eta sortzaileekin berba egiteko aukera egongo da

> SZENATOKIA Amaia Ugalde Szenatokia, aurten ere, euskarazko antzerkigintzaren erakuslelho izango da azoka egunetan. Bertako plana, baina, ez da izango antzezlanak ikustea bakarrik: antzerkiari buruz berba egin, hausnartu eta sortzaileak ezagutzeko aukera egongo da Szenatokia hartuko duen San Agustin kulturunean. Aurten, gainera, estreinaldi bat ere izango da azokaren azken egunean; *Txapeldun* dantza ikuskizuna taularatuko du Organik dantza taldeak, Kepa Junkera musika-riagaz batera.

Helburu bat lortzeko egiten den esfortzuaren gaineko lana da *Txapeldun*. Eneko Balerdi dantzaria izango da ikuskizuneko protagonista, eta koreografiarako musika Kepa Junkerak konposatu du. Abenduaren 8ko estreinaldian, Junkera San Agustinen izango da, eta zuzenean joko du soinua. Ikuskizuna 19:00etan hasiko da.

Antzerki sustapenari buruz *Kafie eta berbak* izenburuagaz, zapatu eguerdian solasaldirako tartea hartuko dute Szenatokian. Aurten, euskarazko antzerkia bultzatzeko ekimenen gaineko mahai ingurua prestatu dute EHAZE Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak eta San Agustin kulturuneak.

Giro informalean egingo dute solasaldia. Batetik, produkzio berriak sustatzeko Zubi eta Mugalariak egitasmoen antolatzaileak izango dira, eta, bestetik, aurten ekimen horien laguntza-gaz martxan dauden antzezlanak eskainiko dituzte. Zubiren laguntza Lauka taldearen *Amodioaren ziega* lanak lortu du aurten. Donostia 2016ren barruan dagoen Mugalariak programak, berriz, honako lan hauei lagundu die: Artedramaren *Ettxekoak*, Dantzaren *Txoriak*, Eliraleren *Sartie-ka*, Rouge Elearen *Zuek*, eta Itziar Eliasen eta Izaskun Arandiaren *Eskutitzak*.



Iazko antzerki maratoko partaideak. Argazkia: Gerediaga Elkarte, Txelu Angoitia.

Zapaturako, Argizaiola saria Anuntxi Aranari emateko gala antolatu dute San Agustinen. 20:00etan hasita, Oier Guillanek zuzendutako antzezpena ikusi ahalko da: Aranaren ibilbidea du oinarri gidoiak.

Sortzaileengandik gertu Domekan, antzerki pieza zatiak ikusteko aukera egongo da Szenatokian. Tradizio bihurtzen dabil formatu hau. Eguerdian, 12:00etatik 14:00etara, lau antzezlanen zatiak ikusi ahalko dira. Ordu laurdeneko zatiak izango dira, eta lanen artean sortzaileekin berba egin eta mokadu bat egiteko aukera egongo da. Arratsaldean, 18:00etatik

20:00etara, beste lau lanekin osatuko dute antzerki maratokia.

Talde amateurrek zein profesionalek erakutsiko dituzte euren lanak. Tartean, Atx taldeak

Arren ganbara eta emeen sotoa lana aurkeztuko du goizean; Eneko Sagardoy aktore durangarrak parte hartzen du talde horretan.

Gaur, itzalekin jolasten

Ikasleen egunean, iaz egin zuten antzera, gaztetxoei antzerki munduaren barrunbeak erakutsiko dizkiete San Agustinen. Gaurkoan, Gasteizko Zurrunka antzerki taldekoek gidatuko dute saioa, eta itzalen antzerkia zelan egiten den ikasiko dute Szenatokira hurreratzaren diren ikasleek.

Hiru txandatan egingo dute tailerra. Lehenengo, itzalak sortzeko zer baliabide erabiltzen diren eta argiztapenaren jokoa zelakoa den ikusiko dute. Gero, itzalekin jolasteko txotxongiloak egingo dituzte, eta, amaitzeko, publikoaren lekuan jesarriko dira, itzalekin egingako antzezlan bat ikusteko.

Iaz Karrika taldeagaz egin zuten lehenengoz ikasleentzako saio berezia, eta antzezlanen atzeko aldeak erakutsi zieten.

SZENATOKIA GUNeko EGITARAUA

ABENDUAK 5, BARIKUA

10:00 ‘Itzalak sortuz’. Zurrunka antzerki taldea. Hiru saio ikasleentzat.

ABENDUAK 6, ZAPATUA

12:00 ‘Kafie eta berbak’. 2014ko euskal antzerki deialdien saridunen aurkezpenak:

Zubi:
• ‘Amodioaren ziega’, Lauka.

Mugalariak:
• ‘Ettxekoak’, Artedrama.
• ‘Satie-ka’, Elirale.
• ‘Txoriak’, Dantzaz.
• ‘Zuek’, Rouge Elea.
• ‘Eskutitzak’, Itziar Elias eta Izaskun Arandia.

20:00 Gavean Argi emanaldia.

Argizaiola saria.
Saritua: Anuntxi Arana.
Sari-emailea: Gerediaga Elkarte.
Galaren zuzendaria: Oier Guillan.

ABENDUAK 7, DOMKA

12:00 Lau antzezlan zati:

- ‘Jadanik hilda’, Parasite antzerki taldea.
- ‘Emakumeak protagonista’, Ixabel

Agirresarobe.

- ‘Arren ganbara eta emeen sotoa’, Atx antzerki taldea.
- ‘Haro modernoak’, Labanaroa antzerki taldea.

18:00 Lau antzezlan zati:

- ‘Erotik’, Taupada antzerki taldea.
- ‘Amets zirkoa salgai’, Aldatzen laguntzen antzerki taldea.
- ‘Denboraren korapiloak’, Mikel Martínez.
- ‘Oroitzapenak’, Joseba Usabiaga.

ABENDUAK 8, ASTELEHENA

19:00 ‘Txapeldun’ antzezlanaren estreinaldia. Organik dantza taldea eta Kepa Junkera.



2
euroan
salgai

2015
Durangaldeko egutegia

anboto
komunikabideak

Durangaldeko egutegia salgai
Durangoko Azokan eta ohiko saltokietan

ABADIÑO · ATXONDO · BERRIZ · DURANGO · ELORRIO · GARAI · IURRETA · MALLABIA
· ATXONDO · MAÑARIA · OTXANDIO · ZALDIBAR · ZORNOTZA

RENAULT
TWINGO
BERRIA
MUGITU ZAITEZ
ASKATASUNEZ



GAURSA

ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA
KALE NAGUSIA, 65. TEL. 94 441 74 50. BILBO
OTAOLA ETORBIDEA, 22. TEL. 943 82 09 74. EIBAR
LETXUNBORRO HIRIBIDEA, 89. TEL. 943 63 91 22. IRUN www.gaursa.com

BILBO BERRI

JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU www.bilboberri.com

Twingo Berria gama: kontsumo mistoa (l/100km) 4,2tik 4,3ra bitartean. CO₂ emisioak (g/km) 95etik 99ra bitartean.



Eskualdeko argitalpenak

Durungaldeko idazleek eta musikariek 2014. urtean liburu eta disko forman emandako sorkuntzen ale hauek eskuragarri izango dira Durango Azokan



Mañukorta, bertsonajea

Xabier Amuriza

Argitaletxea: Bizkaiko Bertsozale Elkartea

Bizkaiko Bertsozale Elkartek Gregorio Larrañaga *Mañukortari* buruzko ikerketa egitea proposatu zion Xabier Amurizari, eta azterketa hori liburuan dator orain. Datu bilketa egin ostean, *Mañukortaren* bizitza sei ataletan banatuta idatzi du Amurizak. Batez ere elkarriketak agertzen dira liburuan, protagonistaren pentsaera eta iritziak islatzen dituztenak. Bertsolaritzaz eta bestelako gaiet buruz ere berba egin du *Mañukortak*.



Astola 8

Txelu Angoitia

Argitaletxea: Gerediaga Elkartea

Gerediaga Elkartek urtero argitaratzen duen *Astola* aldizkariaren beste ale bat aterra berri da labetik. Dagoeneko, zortzigarren edizioa da aurtengoa. Durangaldearen historian sakontzea eta ikerketa lanak plazaratzea da ekoizpenaren helburua. Txelu Angoitia argazkilariak koordinatzen du aldizkaria, eta Durungaldeko hainbat kazetari eta lagunen ekarpenekin elkarlanean garatutakoa da.

Doministripu jauna

Leire Bilbao

Argitaletxea: Elkar

Leire Bilbaoren liburu honetan Antton Olariagak marraztu ditu irudiak. Doministripu jauna da protagonista. Izan ere, doministiku egiten duen bakoitzean, istripu bat gertatzen da. Herriko kale estuetatik dabilela usain egiten badu, balkoietatik eskegita dauden arropak lekuz aldatzen dira. Adibidez, hirugarren pisukoaren galtzontzilloak bigarren pisura eta laugarren goaren praka bakeroak bosgarrenera.




Itsasoa edan dut

Leire Bilbao

Argitaletxea: Ibaizabal

Enrique Morenteren irudiekin osatu du Leire Bilbaok liburua. Umeentzako liburua da, lehenengo irakurketetan modu autonomoan irakurtzen hasi daitezen. Testu arinak, esaldi laburrak, letra mota argia... Gainera, orrialde osoko ilustrazioak testuari laguntzera eta kontaketa osatzera datoz.

Maddi da liburuko protagonista, eta itsas hondoan topatuko duenak beldurra ematen dion arren, probatzera ausartuko da.



Odolaren deia

Iñaki Irasizabal

Argitaletxea: Elkar

Irasizabalen nobeletan ohi den legez, delituak, hilketak eta azpikeriak topatuko ditugu liburuan. Gaztetatik elkarren berri izan ez duten anaia bi berriro elkartuko dira, aita-aren heriotza dela-eta. Nerabe bortitzak izan ziren biak behinola. Gazteenak ganorabako samarra izaten jarraitzen du, eta zerbitzari gisa ateratzen du aurrera bizimodua; zaharrena guraso zintzo eta eraikuntza arloko negozio gizon serio bihurturik dago orain.



Txomintxo eta Perutxo losuri fardela aldatzen

Txomin eta Peru Magdalena

Argitaletxea: Elkar

Txomintxo eta Perutxoren abentura berri bat dakarte Txomin eta Peru Magdalenak. Oraingo honetan ikasgelan daude protagonistak, eta, irakaslea falta den une batean, Iosu ikaskideak kaka egin du. Anaia bihurriak ezin dira geldirik egon, eta fardela aldatzeko prest agertu dira. Lehen aldia dute horrelako zeregin batean, baina ez dago ezer gure mutikoak beldurtuko dituenik, eta arazo barregarriak sortuko dira.

Aneren kontakatilua / Iker ikerlaria

Xabier Olosa

Argitaletxea: Ibaizabal

Xabier Olosak liburu bi kaleratu ditu Ibaizabal argitaletxeagaz. *Aneren kontakatilua* zortzi urtetik gorakoentzat da, eta ikasleek, irakurketan trebatzeaz gainera, literaturara hurbiltzeko aukera izango dute. Anek kontakatilua esaten dion koadernoan idatziko ditugartzen zaizkion gauzak.

Iker ikerlaria, oster, sei urtetik gorakoentzat da egokia. Handitan zer izan gura duen kontakutuko du Iker protagonistak.




Erresumaren ilusentia

Mila Salterain

Argitaletxea: Txalaparta


Mila Salterainen nobela berria 1190ean dago girotuta. Alfonso VIII. Gaztelako erregeak Nafarroako Santxo V. erregeari Bizkaia kendu zion, eta, erreinu bien arteko gatazka politikoaren muga bihurtu zen Durangaldea. Erregeen arteko istorioez gainera, beste hainbat pertsonaiari buruzko kontakizunak ere badakartza Salterainek: Peru itsua, Anglesa sakristaua eta Prudentzio sasikumea, besteak beste.





Ilargian kulunkantari / Txuntxurrun berdeko animalien kontakizunak
Xabier Olaso
Argitaletxea: Pamiela

Pamiela argitaletxeagaz ere argitaratu ditu idazlanak Xabeir Olasok, eta hemen ere haur literaturakoak. Alde batetik, *Ilargian kulunkantari* izeneko bilduma dakar, lau liburuxkak osatutakoa. *Ilargia*, *Bost*, *Miau* eta *Krokodiloa* dira ipuin horiek. Bestetik, *Txuntxurrun berdeko animalien kontakizunak* kaleratu du. Saturnino izeneko satorra da protagonista, eta basoko gertarak kontatuko ditu.



Euskera erro eta gara. Lan guztiak I: Euskaldunon hizkuntza eta ikuskera
Bittor Kapanaga
Argitaletxea: Gerediaga Elkarte

Bittor Kapanaga euskaltzale otxandiarrek euskararen inguruko bere teoriak zeuzkan, eta, heterodoxoa izanik, sarritan talka egiten zuen gehiengoak onartutako teoriekin. Bere idatziak liburu bitan kaleratuko dira, eta hauxe da lehenengo bilduma. Euskarari eta euskaldunon mundu ikuskerari buruzko ideiak topatu ahalko dira bertan. Kapanaga hil ostean, bere lagun batzuek bultzatu zuten egitasmoa.



You name it
A to the B
Diskoetxea: Rock Izar

Euskal Herriko kulturak batzen dituen taldea da A to the B. Ariane García abeslariak eta Ben Osei rap kantariak osatzen dute, eta hip hop, pop eta R&B musika estiloak lantzen dituzte. Azaroan bertan Plateruena Kafe Antzokian aurkeztu berri dute euren diskoa. Durangoko Rock Izar diskoetxeagaz argitaratu dute lana. Hamabost abesti dauzka, batez ere ingelesez abestuak, nahiz eta euskaraz eta gaztelaniaz ere abesten duten.



Haur Besoetakoa. Litxarrerien jauna
Unai Iturriaga eta Alex Sanvi
Argitaletxea: Ikastolen Elkarte

Xabiroi bildumako ale berri bat dakarte Unai Iturriagak eta Alex Sanvik. *Haur Besoetakoa. Litxarrerien jauna* komikian, litxarrerien eta bideo jokoen merkatu klandestinoaren nagusia ezagutuko dugu. Beraz, umeen arteko *Godfather* edo aitajaun berezi bat. Irakurleak begien aurrean duen munduan legez, handinahikeria, boterea eta ustelkeria nahasten dira haurren mundu honetan ere. Ikastolen Elkartearen eskutik argitaratu dute.



Berreginez
Inun
Diskoetxea: Rock Izar

Mikel Inunziaga *Inun* zornotzarrak bere lehenengo diskoa kaleratu du aurten, *Berreginez* izenagaz. Bakarlaria da, eta diskoa ere modu horretan egin du. Izan ere, berak grabatu ditu soinu instrumentalak; adibidez, danbor elektronikoa eta oihartzun ugari egiten dituen pedal bat erabili ditu *Inunek*. Pop estiloko hamaika kantu dakartza, eta euskaraz abesteko erabakia hartu zuen lana grabatzeko, gainera.




Gosariak
Joseba Sarrionandia, Gose, Iñigo Arregi, Juan Luis Goikolea eta Ander Lipus
Diskoetxea: Jangura

Joseba Sarrionandia idazle iurretarrak, Gose musika taldeak, eta Iñigo Arregi eta Juan Luis Goikolea artista plastikoek indarrak batu dituzte *Gosariak* lanean. Sarrionandiak sortutako testuak kanta bihurtu dira Gosen eskutik, eta, era berean, irudi bihurtu dira Iñigo Arregiren eta Juan Luis Goikolearen lanari esker: edozein norabide hartu dezakeen lan bakarria biribildu dute. Musikaren grabaketan Ander Lipus aktoreak ere parte hartu du.


Borrokak darrai
Iheskide
Diskoetxea: Mauka

Elorrioko Iheskide taldearen laugarren lan luzeak 2014an ikusi du argia. *Borrokak darrai* izenagaz, punk-rock estilo biziko hamahiru kanta batzen ditu diskoak. Euren izaerari eutsi, eta letra zuzenak landu dituzte lan honetan ere. Salaketa eta aldarrikapenez betetako abestiak sortu dituzte: Iheslariak, langile-borroka, Palestina... Arkaitz Bellon aurten hildako preso elorriarra ere gogoan izan dute Iheskidekoek.



R
Alain Concepción
Diskoetxea: Izkar

Alain Concepción abeslari zornotzarraren diskoa da musika eskaintzaren aurtengo nobedadeetako bat. Rock, pop eta soul estiloetako hamar kanta dakartza, guztiak ingelesez abestuak. Concepcionez bakarrik argitaratzen duen bigarren lana da *R*, 2012an *Izan* dira kaleratu eta gero. Hamar urtez hainbat musika taldetako partaide izan da musikari zornotzarra, Jare taldekoa adibidez, eta musika irakasle ere bada gaur egun.





‘Hegoak erein’ jaialdia kulturgileen eta sortzaileen topaleku izango da antzokian

Eneko Sagardoy, Gorka Urbizu, Gari eta Kukai izango dira, adibidez, Plateruenean



hegoak erein

PLATERUENEAN / ABENDUAK 6 / 22:30ean/ Sarrera: 6€

AMETS ARZALLUS/ ANARI/ DANELE SARRIUGARTE/ ENKO SAGARDOY/ GARI/ GØSE/ GORKA URBIZU/ KUKAI DANTZA/ MIREN AMURIZA/ PADDY REKALDE & DJ/ SEI URTE.

Gauerditik aurrera: HAMAR URTEKO GAUA MUSIKA SESIOA: JON ESKISABEL

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA - Landako etorbidea, 4x - 48100 Durango - TF: 946 030 100 - kultura@plateruena.net - www.plateruena.net

► **PLATERUENA** Jone Guenetxea Ekitaldi berezia prestatzen da biltza Plateruena Kafe Antzokian abenduaren 6rako, gaueko 22:30erako. ...*eta urte askotarako!* diru ekarpen eta borondatezko lan kanpainagaz lotuta dago *Hegoak erein* jaialdia. Plateruenean hamargarren urteurrenean bete-betean sartuta dauden honetan, Durango antzokiaren inguruan jardun duten hainbat sortzaile eta kultur gile bildu dira jaialdiagaz bat egiteko: Amets Arzallus bertsolaria, Anari abeslaria, Danele Sarriugarte idazlea, Gari abeslaria, Gose taldea, Gorka Urbizu Berri Txarrak taldeko abeslaria, Kukai dantza taldea, Miren Amuriza bertsolaria, Paddy Rekalde idazlea eta Seiurte taldea. Eneko Sagardoy aktore durangarrak harituko du eki-

taldia, eta Igor Elortza eta Peru Magdalena ibili dira gidoigile. Jaialdiaren sinopsian aurreratu dutenez, “euskaldunon kultura berpizkundearen mitoak bizi du. Lur jotze eta hegaldatzetengabea dabil; lurperatu ere

Plateruenean 10. urteurrenean, hainbat kulturegilek eta sortzailek jaialdiagaz bat egin dute

egin nahi izan dute sarri. Baina beti egin du haizetara”. Beraz, ideia horretatik abiatuta jarri diote jaialdiari izena. Ondoren, Jon Eskisabelek Hamar Urteko Gaud musika saioari ekingo dio, gauda biribiltzeko.

Platerueneko oholtzak bestelako kontzertu eta ekitaldiak ere hartuko ditu Durango Azokaren egunetan. Euskal musikagintzan dabilen hainbat taldek beraien nobedadeak zuzenean aurkezteko baliatuko dituzte lau egunak. Hesian eta Vendetta taldeek gaur, abenduak 5, eskainiko dute kontzertua. Abenduaren 7an, berriz, Gernikako Gatibu taldearen txanda izango da. Sarrerarik eskuratu ez dutenek gaitz izango dute txartela lortzea, orain aste batzuk agortu zirelako. Saioa taldeak *Bi lana* aurkeztuko du abenduaren 7an, 14:00etan. Kamila Zubeldia eta Marieder Iriart dira taldeko kideak. Durango Azokako egitarauagaz amaitzeko, Nafarroako Kometa taldeak zuzeneko eskainiko du 19:00etan.

Katamalo Plateruena Kafe Antzokian emandako agur kontzertua zuzenean!

Plateruenean alde Katamalo egindako lana 8 €-an eskuragai ANBOTOn eta Plateruena Kafe Antzokian



katamalo

Plateruenean zuzenean

PLATERUENA

Zuzenean, Durango kultura bizitzeko.

...eta urte ASKOTARAKO!

Katamalok Plateruenean grabatutako zuzeneko diskoa kaleratu dute

Biltzen den dirua Platerueneko *...eta urte askotarako!* kanpainara bideratuko da



Igor Iglesias, Goiatz Pelaez, Gotzon Barandiaran eta Itziar Castrillo.

> DISKOA Jone Guenetxea Kanean da Plateruenak eta Katamalok elkarlanean grabatutako kontzertutik irtendako diskoa: *Katamalo Plateruenean zuzenean*. 2011ko azaroaren 18an grabatutako Katamaloren agur kontzertua biltzen du, eta Musika Zuzeneanen erakusmahaiaren eta antzokian dago salgai.

Katamalok kontzertu honetako eskubideak Plateruenaren esku utzi ditu, *...eta urte*

askotarako! diru ekarpen eta borondatezko lan kanpainagaz bat eginda. Gotzon Barandiaren arabera, “hiru urte eta gero guk geuk disko hau kaleratzeak ez zuen zentzu handirik. Plateruenagaz hasieratik izan gara bidelagun, hain zuzen Bihotz Bakartien Kluba sortu genuenetik. Logikoa eta naturala zen grabazioa antzokiaren esku uztea; diru ekarpen pertsonala egin beharrean, diskoa eman

diogu. Ateratzen dena Durangoko antzokiaren proiekturako izango da”. Itziar Castrillo saxofoi-jotzaileak Katamalogaz azkenengo biran egin zuen bat, eta pozik dago emaitzagaz. “Grabazioa gau horretan bizi izan genuenaren isla da. Plateruena jendez gainezka zegoen, eta emozio handiko kontzertua izan zen”. Gogoratu dutenez, aurretik grabatu gabeko bost abesti ere entzun daitezke diskoan.

PLATERUENA EGITARAUA

ABENDUAK 5, BARIKUA

11:00 Guetto.

Euskal kantagintza. Ikasleei zuzenduta.

23:00 Vendetta eta Hesian. Sarrera 12 eta 15 euro.

ABENDUAK 6, ZAPATUA

22:30 ‘... eta urte askotarako!’, diziplina anitzeko ikuskizuna.

Ametz Arzallus / Anari / Danele Sarriugarte / Eneko Sagardoy / Gari / Gose / Gorka Urbizu / Kukai Dantza / Miren Amuriza / Paddy Rekalde & DJ / Sei urte

ABENDUAK 7, DOMEKA

12:00 ‘Guk geure kulturaz’.

23:00 Gatibu. Sarrera 12 eta 15 euro.

ABENDUAK 8, ASTELEHENA

13:00 Saioa (sarrera doan).

19:00 Kometa (sarrera doan).

JESUITAK
Durango

San Jose Ikastetxea

San Jose Jesuitak Ikastetxea.
Kurutzia, 1. Durango

Tfno: 94 681 00 50

sanjose@durangojesuitak.org
www.durangojesuitak.org

ATE IREKIAK

abenduaren 18an arratsaldeko 17:00etan

Haurtzaindegian izena emateko epea zabalik.

Zuen seme-alabak eta gu, batera haziz

Jakin nahi duzu non eta zelan?

Zatoz gu ezagutzera.

informa zaituz!

Euskarazko 35 film eskainiko dituzte Zugaza zinemako Irudienea gunean

Fikziozko film luze zein laburrak, eta dokumentalak emango dituzte, esaterako



Xalbador bertsolariaren bizitzari buruzko dokumentalaren Hego Euskal Herriko estreinaldia hartuko du Irudieneak.

> ZINEMA Itsaso Esteban Euskarazko zinemaren gune bilakatuko da, Durango Azo-kako egunetan, Zugaza zinema. Euskaltzaleen Topagunearen

eskutik, zinemako 35 sorkuntza izango dira ikusgai: film luze eta laburrak, bideoklipak eta iragarkiak izango dira, besteak beste, ikusgai. Egileekin sola-

saldiak ere antolatu dituzte, eta Kameratoia film laburren rallya ere hartuko du Irudieneak.

Durango Azokak irauten dituen lau egunetan, egun osoko

egitaraua izango da Irudienean. Askotariko adin eta intereseko ikusleei zuzenduriko eskaintza izango da Uribarri kaleko ikus-entzunezkoen plazan.

Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga zuzendariak *Loreak* filma aurkeztuko dute, domekan, 19:00etan. Lore sorta xume batek hiru emakumeren bizitzetan zelan eragiten duen kontatzen du lanak. Donostiako Zinemaldian estreinatu zutenetik, Euskal Herriko zinema areto asko bete ditu *Loreak* filmak. Irudieneako eskaintzaren berezitasuna da egileak filmari buruz berbetan entzuteko aukera dagoela.

Fikziozko beste film luze bi ere emango dituzte Irudienean: komediazkoa da bata, eta umore ukitu nabarmeneko zontziei buruzko filma bigarrena. Gaur izango da *Bingen* komediazko filmaren emanaldia: Ander Odriozola egileak, eta Miren Gaztañaga eta Galder Perez aktoreek aurkeztuko dute filma. Bihar emango dute, bestalde, *Joxean's Hil Eben*. Beñat Iturrioz eta Xabier Padin zuzendariak,

eta Etxahun Galparsoro aktore nagusia gonbidatu dituzte Irudieneako aurkezpen horretara.

Urtero bezala, umeentzako filmek ere izango dute lekurik Irudienean, eta Euskal Herrian ekoiztiriko film laburrak ere emango dituzte Laburbira ize-neko sailean.

Dokumentalen eskaintza

Askotariko gaiez gogoeta egiteko, inoizko dokumental eskaintza zabalena eskainiko du Irudieneak, gaurtik astelehenera arteko Durango Azokan. Urepeleko Fernando Aire Xalbador bertsolariari buruzko *Xalbador, izana eta izena* dokumentalaren Hego Euskal Herriko estreinaldia hartuko du, esaterako, Irudieneak. Abenduaren 6an, Eneko Dorronsoro zuzendaria izango da filma aurkezten. Gainera, hamargarren urteurrena ospatzen diharduen Adarots musika taldeari buruzko dokumentala eskainiko dute, eta baita taldearen zuzeneko musika ere: domekan, 14:00etatik aurrera.

IRUDIENEAKO EGITARAUA

ABENDUAK 5, BARIKUA

10:30 'Bikoizketa tailerra'. Mixer eta Zineuskadi. Ikasleei zuzendutako lau saio.

16:00 'Baso ahaztuak'. Dokumentala. Sortzaileek aurkeztuko dute.

17:30 'Dragoi Bola Z'. Film emanaldia. Zinema euskaraz.

19:30 'Bingen', Ander Odriozolaren filma. Zuzendariak eta Gabriel Ocina aktoreak aurkeztuko dute.

ABENDUAK 6, ZAPATUA

10:30 Kameratoia. Aurkezpena.

12:00 'Kalesareak', Iban Gonzalezen dokumentala. Zuzendariak eta K proiektuko parte-hartzaileak aurkeztuko dute.

13:30 'Iruñea, izanaren hondamendia', Rubén Marcillaren dokumentala. Nabarraldeko kideek aurkeztuko dute.

14:30 'Gazte harrigarria, T.S. Spivei'. Zinema euskaraz.

16:15 Laburbira. Film laburrak.

• 'Bere bizitzetako bat', Aitor Gametxo • 'Zarautzen erosi zuen', Aitor Arregi zuzendariak aurkeztuko du • 'Betiko', Arantza Ibarra • 'Aitona Mantangorria', Kepa Errasti zuzendariak aurkeztuko du • 'Otsoko', Ander Iriarte • 'Hurrengoa', Aitor Arenas zuzendariak aurkeztuko du • 'Nire aitaren etxea', Irene Bau zuzendariak aurkeztuko du.

18:15 'Joxean's Hil Eben', Beñat Iturrioz eta Xabier Padinen filma. Zuzendariak eta Etxahun Galparsoro aktoreak aurkeztuko dute.

19:30 'Xalbador, izana eta izena', Eneko Dorronsoren dokumentala. Zuzendariak aurkeztuko du. Estreinaldia Hego Euskal Herrian.

ABENDUAK 7, DOMAKA

11:00 Laburbira. Film laburrak.

• 'Egunero' eta 'Garai berriak', Uxue Arzelus eta Koldo Almandoz. Koldo Almandozek eta Kontseiluak aurkeztuko dituzte • 'Hubert le Blon azken hegaldia', Koldo Almandoz zuzendariak aurkeztuko du • 'Sailor's Grave', Kolektiboa. Koldo Almandozek aurkeztuko du • 'Arconada', Asier Urbieto • 'Sagarra bildu', Iban Rusiñol eta Nicolas Novion zuzendariak aurkeztuko dute • 'Lloba', Nicolas Novion zuzendariak aurkeztuko du • 'Soroa', Asier Altuna zuzendariak aurkeztuko du • 'Eta orain zer egingo dugu?', Jose Cruz Gurrutxaga eta Aitor Aranguren. Jose Cruz Gurrutxagak aurkeztuko du • 'Nirekin eraman nahiko nukeen jende hori', Maria Elorza zuzendariak aurkeztuko du • 'Don Miguel', Kote Camacho. Eriz Alberdi aktoreak aurkeztuko du • 'Hor dago', Urko Villasante zuzendariak aurkeztuko du • 'Irene hondartzara doa', Pello Varela zuzendariak aurkeztuko du.

15:00 'Martina' eta 'Tarzan'. Film emanaldiak.

Urko Mauduit zuzendariak 'Martina' aurkeztuko du.

18:00 'Bide berriak', Maritxu Arroyoren dokumentala. Zuzendariak, EHNE Bizkaia eta Bizilurreko kideek aurkeztuko dute.

19:30 'Loreak', Jon Garañoren eta Jose Mari Goenagaren filma. Zuzendariak aurkeztuko dute.

ABENDUAK 8, ASTELEHENA

11:00 'Dabilen harriari goroldiorik ez'. Dokumental emanaldia eta eztabaida. Joxemi Zumalabe Fundazioa eta Topatu.info.

12:30 'Aulki hutsak', Iñaki Peña. Dokumental emanaldia. Iñaki Peña zuzendariak eta taldeko kide batzuek aurkeztuko dute.

14:00 'Adarraren hotsa'. Dokumental emanaldia. Taldeko musikariek aurkeztuko dute.

14:45 'Big boy'. Iñigo Garcia. Sasi-dokumental emanaldia.

17:00 Kameratoia. Sari banaketa eta emanaldia.

A. Urreta podólogo

Almora Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, behe - 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

GALLASTEGI
www.gallastegiharategiak.com

1955ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

EUSKO LABEL

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

ZARATE ELEXPE

ERAGILEAK



Gure kalitatea hobetu dugu,
eta... prezioa ere bai!

• *etorri ikustera* •

Oiz mendira
begiratokiak

Durango
herrigunean

Leku zabalak

Energia-
eraginkortasun
handiko etxebizitzak

Hiriko txaletak

www.zarateyelexpe.com

Bixente Kapanaga, 19

Durango - Bizkaia

946 916 673

 Zarate eta Elexpe Eragileak SL.

Sarrera saldu beharrean, elkartasun laguntza eskatuko diete aurten bisitariei, artisauen Euskal Dendan

Abenduaren 5etik 8ra bitartean garatuko da artisauen Euskal Dendaren XIX. edizioa; Okzitaniako lau artisau etorriko dira



> ARTISAUTZA M. Onaindia
XIX. edizioa antolatuko du aurten artisauen Euskal Dendak. Abenduaren 5etik 8ra egingo da, Durangoko Azokaren egunetan, eta sarreragaz lotutako nobedade esanguratsu batez dator. Izan ere, bisitariei elkartasun laguntza eskatuko diete, baina ez dute sarrerarik salduko. Arbaso artisauen elkarteko antolatzaileek azaldu dutenez, krisiak eta aurrekontuaren beherakadak eragin dute neurri hori hartzea.

Arbaso elkarteko Bernat Vidal presidenteak azaldu du “egoera ekonomikoa ikusita” hartu dutela sarrerarik ez ipintzeko erabakia. Beraz, bisitariei begira egindako ekarpena da. Baina Euskal Denda ere egoera gaitzean dagoela esan du, eta, horregatik, elkartasun laguntza edo borondatea eskatuko dute sarreran. Vidalen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak 35.000 eurotik 26.000 eurora bajatu du diru-laguntza; 9.000 euro gutxiago, hortaz. Gainera, azken urteetan

bisitarien kopuruak ere behera egin du. “2010ean hasi ginen krisia igartzen. Orduan 18.000 euro aterata genituen txarteldegian, eta iaz 15.000”, esan du Vidalek. Euskal Dendagaz zer egin hausnartzen ibili direla ere adierazi du: “Ezin dugu Euskal Herriko

50
artisauk parte hartuko dute guztira Euskal Dendaren aurtengo edizioan

azoka enblematikoenetako baten irudia txikiagotu”. Baina, azkenean, artisauen azokari eustea erabaki dute.

Belaunaldi berriak

Erreleboagaz dator, gainera, *Ametsak gauzatu* lelopean garatuko den Euskal Dendaren XIX. edizioa, eta nobedade hori “itxaropentsua” dela uste du Vidalek.

Unzueta saskigile familiako Bea Unzuetak lehen aldiz parte hartuko du Euskal Dendan. Adibidez, gaztainondoagaz egindako motxila bat aurkeztuko duela aurreratu du Vidalek. Bestalde, Irungo Alberdi makilagileen kasuan, Beñat Alberdik ere postua ipiniko du.

Bost, Durangaldekoak

Olatz Pujana Arbaso elkartearen bozeramaileak eman du egitarauaren berri. Euskal Herriko 46 artisauk erakutsiko dituzte euren gaiak, eta horietatik bost izango dira Durangaldekoak: Durangoko Restaurarte, Jaio gazta ekoizle iurretarra, larrua lantzen duen Elorrioko Wandel, Eneko Unzalu bitxigile mañariarra eta aurrez aipatutako Bea Unzueta durangarra.

Gainera, Okzitania izango denez aurtengo Durangoko Azokako gonbidatua, herrialde horretako lau artisau etorriko dira Euskal Dendara. Beraz, 50 artisauk parte hartuko dute guz-

tira Euskal Dendaren aurtengo edizioan.

Andoni Iruarizaga zinegotziak gogoratu du Durango “euskal kulturaren eta artisautzaren hiriburu” bihurtzen dela azoka egunetan, eta jende guztiari ondoetorria eman dio.

Artetsu sariak

Bestalde, 2005etik bizirik dagoen ohiturari jarraituz, aurten ere eskainiko dituzte Artetsu sariak. Artisautzaren alde egiten duten artisau, erakunde eta hedabideak saritzen dituzte, eta, horren bidez, “konplizitateko bideak eta loturak” ere sortu gura dituzte, Arbasokoen arabera. Aurten, Lurbe Zeramika, Sondikako Udala, *Berria* hedabidea, Aranzadi erakundea eta Korrikak jasoko dute oroigarria. Abenduaren 5ean izango da sariak emateko ekitaldia, 20:00etan, San Agustin kulturunean. Horren aurretik, 12:00etan inauguratuko dute Euskal Denda.

ORDUTEGIA

Irekita: Abenduaren 5etik 8ra.
Goizetan: 11:00etatik 14:30era.
Arratsaldetan: 16:30etik 21:00etara.
Barikuan: 19:00ak arte.
Astelehenean: 20:00ak arte.
Inaugurazioa: Abenduaren 5ean, 12:00etan.

SALTOKIAK

Bizkaitik: 19 - Durangaldetik: 5
Gipuzkoatik: 17
Nafarroatik: 4
Arabatik: 3
Lapurditik: 1
Nafarro Beheretik: 2
Okzitaniatik: 4

SEKTOREKA

Metala: 10
Ehungintza: 7
Nekazaritza: 6
Egurra: 7
Beira eta larrua: 8
Gainerakoak: 12

- SARRERA: Borondatea.

GOIURIA
JATETXEA
ERRETEGIA

GOIURIA
RESTAURANTE

46€
BEZa barne

Modisten afaria
Zapatua 2014-12-13
Djarekin dantza saioa

MENUA

- Urdaiazpikoa
- Onddo entsalada epela
- Otarrainxkak
- Txuleta zatitua edo arkume txutela
- Tarta eta kafea
- Ardo ondua edo ardo gorri aparduna

Goiuria auzoa, 16 - 48215 Iurreta (Bizkaia) • Tel.: 946 810 886 • www.asadorgoiuria.com

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728



Inbasioa hastear da.

FORD TOURNEO COURIER BERRIA

➤ **Sentzat lekua**

Milaka Courier errepideak, bideak, herriak eta hiriak inbaditzeko zorian daude. Konkista gertu dago 8.990 eurogatik. Behar dituzun metro kubiko guztiak eta askoz gauza gehiago disfruta itzazu.

ford.es

8.990€

FORDKONDIA

Otaola etorb. EIBAR
Tel.: 943 207 650

ZIORLA AUTOAK

Santa Maña kalea, 19 IURRETA
Tel.: 946 815 135



Ford Tourneo Courier gama batez besteko kontsumo konbinatua 3,8 litrotik 5,2 litrora 100 kilometroko. CO2 emisioak 100 gramotik 119 gramora kilometroko. EcoBoost motorrak %20raino hobetzen du kontsumoa ohiko gasolina motor baten aldean. Tourneo Courier Ambiente 1.0 EcoBoost 100 ZP (74 kW), 5 ate, aire girotua eta Radio My Connection. Eskaintzak barnean biltzen ditu: BEZa, IM, garraioa, promozio deskontua, Aport., kontzesioa eta deskontua FCE Bank plc S.E. Bankuaren 'Vente a Ford Credit Courier' kanpainaren bitartez finantzitzen; gutxiengo iraunkortasuna 24 hilabete. Gobernuaren PIVE planaren aportazioari lotuta. Penintsulan eta Balearretan baliagarri hilabete amaierara arte. Beste doskontu batzuekin ez da bateragarria. Irudiko modelook ez du zertan bat etorri eskaintzakoarekin.

Euskarazko kultura-digitalean barneratzen diren proiektuen erakusleihoa izango da Kabi@ gunea

Abenduaren 5a ikasleei zuzendutako eguna izango da; mugikorrak segurtasunez erabiltzen irakatsiko diete



Mugikorren segurtasunaren inguruko ikastaroa Maite Goñik eta Gorka Juliok emango dute.

> KABI@ Jone Guenetxea Kabi@ kultura digitalaren plazarak azken hilabeteotako teknologia proiektuak aurkeztuko ditu hurrengo egunetan,

Durangoko Azokan. Aurtengo edizioan, egun bakoitza gai bati lotua egongo da. Abenduaren 5a hezkuntzara zuzenduko dute. Maite Goñik eta Gorka Juliok

eskola umeei beraien mugikorrak segurtasunez kudeatzen irakatsiko diete, baita beraien lehenengo aplikazioak sortzen ere. Era berean, Maite Goñi

irakasleak, teknologia hezkuntzarako tresna dela iritzita, arlo honetako azken joeren berri emango du.

Ikasleak irakasle

Egun batez ikasleak irakasle bihurtuko dira Kabi@a gunean. Ikasleei begira, robotikaren inguruko ikastaroa emango diete Orioko herri eskolako DBHko laugarren mailako ikasleek LHko laugarren mailako umeei.

Lehoiak ametsetan

Athletic futbol taldeak ere protagonismoa izango du teknologiari lotutako gunean. Izan ere, talde bilbotarrari lotutako ipuin sorta barneratzen duen aplikazioa aurkeztuko du Aritz Escadonek abenduaren 6an, sortzaileen egunean. Aurretik, Dani Fanok azalpena emango du Unai Iturriagagaz batera ka-

leratu duen *Xabiroi* komikiaren inguruan.

Aurten, azokako kultura gonbidatua Okzitania denez, Komunitate eta Garapen egunean, abenduaren 7an, euskal kultura eta okzitaniarra sustatzeko tresna digitalen inguruko hitzaldia

Robotikaren inguruko ikastaroa emango dute Orioko herri eskolako DBHko 4. mailako ikasleek

eskainiko dute. Bestalde, Euskara-Okzitaniara hiztegia aurkeztuko dute Elhuyarrek eta Lo Congrès. Arratsaldean, tabu hitzaldien txanda izango da. Aurten ere *euskara* hitza ezingo da erabili.

Amaitzeko, Durangoko Azokaren azken egunerako egitaraua enpresa arlora bideratuko dute.

Gainera, Azokako egunetan .eus proiektuak egunero izango du bere tarte kultura digitalari eskainitako espazioan.

KABI@KO EGITARAUA

ABENDUAK 5, BARIKUA

HEZKUNTZA EGUNA

11:00 'Kudeatu zure mugikorra segurtasunaz eta sortu zure lehen aplikazioa!'. Gorka Julio eta Maite Goñi. Ikasleei zuzendutako bi saio.

14:00 Erakusketa.

16:00 Hitzaldiak eta aurkezpenak:

16:00 'Txio irratia'. Edu Zabala.
16:30 'Teknologia libre eta zerbitzua'. Jabi Luengo.
17:00 'Ikusizkoen hezkuntza'. Mikel Mendizabal Arruti.
17:30 'Euskara irakatsi eta ikasteko tresna erabilgarria'. Lander Iruretagoiena.

18:00 Ekitaldi nagusia: 'Joerak hezkuntzan'. Maite Goñi.

ABENDUAK 6, ZAPATUA

SORTZAILE EGUNA

11:00 Aurkezpenak eta hitzaldiak.

12:00 'Xabiroi'. Komikia bitez-bit, Dani Fano.

12:30 'Lehoiak ametsetan'. Aritz Escandon.

13:00 'Hiri asko bere baitan'. Asier Olabarrieta, Unai Villena, Aitor Gómez.

13:30 '.eus' ekimenaren aurkezpene sortzaileei begira'.

14:00 Erakusketa.

16:00 Aurkezpenak eta hitzaldiak.

16:30 'Italaka.org'. Arkaitz Sukuntza.

17:00 'Hiri asko bere baitan'. Asier Olabarrieta, Unai Villena, Aitor Gómez.

17:30 'Blogari bat liburugile'. '131AZA' liburuaren kasua. Markos Gimeno.

18:00 Ekitaldi nagusia: Ingurune aldagaiak. Aintzane Revuelta eta Beñat Jimenez. Zuk Zeuk kolektiboa.

ABENDUAK 7, DOMEKA

KOMUNITATE/GARAPEN EGUNA

Okzitaniari begira hitzaldiak, aurkezpenak eta mahai inguruak.

11:00 'Xuxen, hamarkada berrirantz', Itziar Cortes.

11:30 'Euskara-Okzitaniara hiztegia', Elhuyar eta Lo Congrès.

12:00 'Dicod'Òc aplikazioa'. Aura Serguier, Lo Congrès.

12:30 Euskal kultura eta okzitaniarra sustatzeko tresna digitalak. Mahai ingurua. Jean-Jacques Castéret ('sondaqui.com'), Benaset Dazéas (Lo Congrès), Pantxoa Etchegoin (EKE), Iurdana Acasuso (Azkue).

13:30 '.eus' ekimenaren aurkezpene komunitateari eta garatzaileei begira.

14:00 Erakusketa.

16:00 Tabu hitzaldiak (hogei minutuko tarteak).

16:20 'Saretuzz', Oskar Gesteira Basañez.

16:40 'euskontu.com', Arkaitz Sukuntza.

17:20 'Tribunal', Mikel Lizarralde.

17:40 'Game erauntsia, hutsune bat betetzera', Iker Ibarburen.

18:00 Ekitaldi nagusia: 'Herri liburutegi digitalak'. BakalHau kolektiboa.

ABENDUAK 8, ASTELEHENA

ENPRESA EGUNA

11:00 Enpresa topagunea. Enpresarean eta Olatukoop.

13:30 '.eus' ekimenaren aurkezpene enpresari begira.

JUAN BERISTAIN
NEKAZARITZARAKO TRESNAK
Salmenta eta konponketa

HONDA **STIHL** **SAME** **posquati** **VIKING** **CARON** **BCS**

Berriozabalbeitia, 14 - Elorrio -Tel./Faxa: 946 231 803 - juanberistain@telefonica.net • www.juanberistain.com



Otra mecánica es posible

Box alokairua

Bestelako mekanika bat posible da



Erraz, denbora eta dirua aurreztuz

Tailer mekanikoa ulertzeko modu berri bat, ibilgailua zeuk konpondu ahal izan dezazun. Gidariekin eta erabiltzaileekin prezio onean euren ibilgailua konpontzeko gunea, zain egon gabe eta dirutzarik xahutu gabe, bakoitzak behar dituen ordezkio piezak ekarri edo bertan eskuratu ditzake-eta.



Zure eskura jarriko dugun tailer batean

Makina arloan azkeneko teknologia zure esku, eta RTVk behar duten bezero guztiei eskaintzen dien doako aholkularitza ere bai. Gainera, ordezkio piezen denda ere badugu, behar duzun guztia eskuratzeko.



Aste osoan (astelehenetik igandera)

Bezereko beharren arabera egokituta, RTVk ordutegi malgua du, astelehenetik igandera, 09:30etik 21:30era ditu zabalik ateak, bakoitzak aukeratu dezan bere ibilgailua zaintzeko ondoen datorkion unea.

Erreserbatu zure boxa
Eman izena trebakuntza
ikastaroetan!

azkar!

Olio eta iragazkia aldatzea

24€
-tik
hasita

Errekuntza-tokia eta
haizearen iragazkia aldatzea

44€
-tik
hasita

info@reparatuvehiculo.com
www.reparatuvehiculo.com



RTV Iurreta
Durango-Bilbo N-634 errepidea, 82 km
UEI-3 poligonoa, 5 zk. behealdea
48215 Iurreta
Tel.: 946 817 914

RTV Basauri
Bilbondo ZK Artunduaga
Bastegi kalea 1A
48970 Basauri
Tel.: 944 008 760

RTV Barakaldo
Max Center ZK
Karega kalea, 35 3A
48903 Barakaldo
Tel.: 944 904 728

Txomin eta Peru Magdalena | Idazleak

“Umeari fardela behin betiko kentzeko lasterketa lelo bat egoten da gurasoen artean”

‘Txomintxo eta Perutxo Iosuri fardela aldatzen’ liburuak kaleratu dute Txomin eta Peru Magdalenak



> HAUR LITERATURA M.O.
Txomintxo eta Perutxoren abentura berriak dakartzate Magdalena anaiek Durangoko Azokara. Umorerik ez da falta-ko euren orrialdeetan.

Zer kontatzen du liburuak?

Peru Magdalena: Ikasgelan daude, eta une zoro bat bizi dute. Ume batek zauri bat egin du, beste batek arrastaka daroa ikaskide bat, batzuk kantatzen dabilta... Irakasleak ezin du egoera kontrolatu. Halako batean, Iosuk kaka egin duela dio, eta Txomintxo eta Perutxo anaia biek eurek aldatuko diotela esan diote. Sekulakoak egiten dituzte. Lehenengo irakurleentzako ipuin bat da.

Gai berezia da kaka eta farde- len aldaketena.

P.M.: Bai. Era libre eta umoretsu batez landutakoa. Izan ere, gurasoen artean trauma piloa egoten da: umeari fardela behin betiko kentzeko lasterketa lelo bat egoten da euren artean. Sagar bakoitzak ere bere unea du jausteko, eta denok amaituko dugu fardel barik; beraz, ez zoratu.

Txomin Magdalena: Gaiari pisua kentzea da helburua. Mezu hori badu. Edozelan ere, moral puntu bat eduki arren, dibertigarri izateko nahia gailentzen da.

Benetako pertsonaiekin oinarritu zarete.

P.M.: Iosu liburuak marrazkilaria da, eta ipuinean sartu dugu. Irakaslea, berriz, Jose Martin Urrutia Txotxe da. Izan ere, pilo bat maite dugu Txotxe. Motots eta guzti agertzen da! Gero, gu bion klaseetan ibilitakoak ere

badaude. Eurretako batek esan zidan ea noiz geratuko garen diru kontuez berba egiteko! [Barrez].

Ondo pasako duzue sorkuntza prozesuan, ezta?

T.M.: Dibertigarria da liburuak bion artean lantzea. Biok gara aita, ipuin kontalaria, ni irakasle ere banaiz... Anekdotak piloa sortzen zaizkigu, eta horiek partekatu, eta idazten joaten gara.

P.M.: Berba egiten dugu, eta idatziak elkarri bidaltzen dizkiogu. Gero, proba modukoak egiten ditugu, ozen irakurrita. Izan ere, garrantzi handia ematen diogu ahozketasunari.

Hirugarren lana da hau. Beraz, baduzue arrakastarik.

T.M.: Aurreko liburu biak bigarren edizioan daude, beraz, saldu dira. Pozik gaude, horrek idazten jarraitzeko aukera eman ahal digulako.

P.M.: Hitz liburu dendako aurkezpenean, ume batzuek buruz zekizkiten aurreko ipuinak. Laster panpinak ateratzen hasi beharko dugu, Pirritx eta Porrotxen moduan [barrez].

Udazkenean argitaraturiko hainbat liburu dakartza Olasok azokara

Hainbat adin tarteko umeentzat idatzi ditu ipuinak Xabier Olasok

> HAUR LITERATURA I. Esteban
Udazkenean argitaratutako haur-errentzako hainbat liburu dakartza Xabier Olasok (Otxandio, 1964) 49. Durangoko Azokara. *Txuntxurrun berdeko animalien kontakizunak* liburuak, eta *Ilargian kulunkantari* saileko lau liburuxka aurkeztuko ditu Olasok Durangoko Azokan: *Ilargia*, *Bost*, *Krokodiloa* eta *Miau* dira liburuki horien izenburuak. Pamiela argitaletxearen saltokian izango dira eskuragai.

Bestetik, Ibaizabal argitaletxeagaz plazaratu ditu Olasok

Iker ikerlaria eta *Aneren kontakitua* ipuinak, eta argitaletxe horren erakusmahai izango dira azoka egunetan salgai.

Hainbat adin tarteko umeentzat sortutako liburuak dira aipatutako horiek. Oraindik irakurtzen ez dakiten haurrekin kantari aritzeko helburuagaz sorturikoak dira, esaterako, *Ilargian kulunkantari* bilduma-koak.

Animaliek sator bati kontatzen dizkioten 30 kontakizun laburrek osatzen dute, bestalde, *Txuntxurrun berdeko anima-*

lien kontakizunak, eta 8 eta 12 urte artekoak zuzenduta dago.

Iker ikerlaria, oster, ipuin labur bat da, eta Estibalitz Jalonek egindako orrialde oso-ko ilustrazioz hornituta dator. Lehen irakurketetan trebatzen dabilzan neska-mutilei dago zuzenduta *Iker ikerlaria*.

Haur literaturako Euskadi saria jaso zuen Xabier Olaso otxandiarra iaz. Hitz jokoak eta umorea biltzen dituen 68 poemaz osatutako *Tximeletrak* liburuak egindako lana saritua zion epaimahaiak.



Haur literaturako Euskadi saria jaso zuen Olasok.

hitz liburutegia

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburutegia.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

HELDUENTZAT
EUSKAL MILIZIA ANTIFAXISTA
ESPAINIAR FAXISTA ALTA-
MENDUAN (1936-1939)
Alfredo Velasco Núñez (2014)

UME ETA GAZTEENTZAT
ARTALDEA
Margarita del Mazo
& Guridi (2014)

MUSIKA
BELE BELTZAK BAINO EZ
Belako (2014)

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

DIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA



ERROTARITXUENA DURANGO

Errotaritxuenaren
arrakastaren arrazoiak:

Finantzatzeko **ERRAZTASUNAK**
ASKOTARIKO tipologiak (1, 2, 3 eta 4 logela)
Terrazak etxebizitza **GUZTIETAN**
Mugarra alderako **BISTA** garbiak
Barneko **PLAZA** zabala
Auzoari **BURU EMATEA**
Gauzatzeko **URBANIZAZIO KARGARIK GABE**
SALTOKIAK eraikinetik oso gertu
Berdeguneak eta **LASAITASUNA**
ARRISKURIK GABEKO aukera

BALDINTZA BERRIAK KONTSULTATU



www.solvía.es Sabadell Guipuzcoano



946 46 20 41
www.sukia.com



Zure etxean zaude
Estás en tu casa

Mocker's | Jon Garcia, Ritxi Blanco eta Asier Elias | 'Percute animas' diskoa plazaratu berri dute

“Rock-and-rollaren benetako esentziaren bila, estudioan zuzenean egin genuen grabazioa”

Jon Garcia abeslari eta bajistak aurkeztu digu Mocker's taldearen 'Percute animas' disko berria

> MUSIKA Itsaso Esteban
Noiztik duzue diskoa prest?

Abuztuan amaitu genuen, eta ordutik hona azaleko diseinua-gaz ibili gara bueltaka. Hainbat aukera izan ostean, hartu dugu erabakia azkenean: belagile bat agertzen da, eta kolore berde psikodelikoa eman diogu.

Hasierako 'The' artikulua kendu, eta 'Mocker's' izenagaz ibiliko zarete aurrerantzean?

Bai, diskoa kaleratzeko, The Mocker barik, Mocker's izendatu dugu taldea. Izan ere, izen bereko hainbat talde zeuden Interneten, eta nahasgarria zen. Izena aldatzea ere eztabaidatzen ibili ginen, baina egokiena artikulua kentzea dela erabaki dugu.

Nondik dator diskoaren 'Percute animas' izenburua?

Diskoaren azalagaz dauka zeri-kusia: sorginkeriagaz. *Greban*

dauden arimak esan gura du izenburuak. Horregaz entzuleei bidali gura diegun mezua zera da: ezin gara besteen nahien arabera bizi, geure kabuz pentsatu eta jardun behar dugu.

Zelakoa izan da diskoaren grabazio prozesua?

Sopelako Sweet Saul Music estudioan grabatu dugu, eta benetan esperientzia polita izan da. Saul Santolari teknikariak proposatu zigun, “benetako rock-and-rollaren esentziaren bila”, dena batera grabatu genezala: kontzertu bat balitz bezala. Hasieran zalantza egin genuen, baina Sau-lek proba egitera bultzatu gintuen. Pozik gaude emaitzagaz.

Noiz egin zenuten grabazioa?

Uztaileko azken astean eta abuztuko lehenengoan ibili ginen grabazioetan. Zornotzako jaietan jo, eta hurrengo astelehenean hasi



ginen grabatzen. Hirugarren astea nahasketak eta aldaketak egiten eman genuen.

Durango Azokan, Ahotse-nean aurkeztuko duzue diskoa.

Bai, aukera itzela da Euskal Herriko hainbeste txokotako jendearengana ailegatzeko. Beharbada, ordua ez da onena, baina guk dena emango dugu. Domekan, 15:40an joko dugu, Ahotsenean. Emanaldiak ordu erdikoa izan behar duenez, diskoko abesti bat kanpoan utzi beharko dugu.

Zelakoak dira diskoko kantak?

Orain bi urte inguru ondutako kantak dira: denbora luzez lan-

dutakoak. Hard bluesa, progresiboa, rock-and-roll gordinagoa, abesti lasaiagoren bat... Dene-tarik dago. Gaiak ere askotari-koak dira: maitasunari buruzkoak, gaitzazkoak, buruzkoak... Esaterako, politikariei eginiko kritika ironikoa da *Heroiak*.

Latinezko izenburua duen kanta batez hasten da diskoa.

Bai [barrez]. Ritxik idatzirikoa da *Lupus Canis Non Familiaris*. Txakurrak ez direla lagunak esaten du letra horrek: polizia-ren bortizkeria kritikatzeko du.

Jendeak badu diskoaren inguru jakin-minik?

Kontzertuak eskaini ditugun

leketan, batez ere, musikaren inguruan dabilen jendeak zera esan digu: “Ta noiz eskuratu genezakeen diskoa!”. Oso bete-garria da guk sinesten eta egiten dugun hori jendeak gogoko iza-tea. Itzela da!

Durangaldeko II. Maketa Lehiaketako saria lagungarri izan duzue proiektua gauzatzeko?

Bai, noski! 1.500 eurokoa izan zen saria, eta oso lagungarri izan dugu. 500 kopia atera ditugu, eta bost euroan egongo dira salgai Durango Intxaurre tabernan eta Gozotxori dendan, Berrizko Fonda tabernan, eta Zornotzako Pozu's Lounge tabernan eta Gozotxori dendan.

Berrargitaratu egin du Inun zornotzarrak maiatzean kaleratu zuen 'Berreginez' lana

Plazaratu zituen mila aleak agortu dira, eta 500 gehiago atera ditu zornotzarrak



Rock Izar diskoetxeagaz elkarlanean egin du berrargitalpena.

> MUSIKA Itsaso Esteban

“Jendearen erantzuna bikaina izan da”, dio Mikel Inunziaga *Inun* (Zornotza, 1983) musikariak. Udaberrian kaleratu zuen *Berreginez* izenburuko lehenengo diskoa, eta argitaratu zituen mila kopiak saldu ditu dagoe-neko. Durango Azokara begira, disko horren bostehun ale gehiago argitaratu ditu. Diskoa

autoekoitzia bada ere, musikariak azaldu duenez, bigarren edizio honetan Rock Izar diskoetxeagaz elkarlanean aritu da.

Maiatzetik asko ibili da Inun bere kantak zuzenean eskaintzen. “Kontuan izanez gero diskoa autoekoitzia izan dela eta nire kabuz ibili naizela, ezin dut gehiago eskatu: jendearen erantzuna bikaina izan da”.

Joan zen asteburuan Paris-ko Euskal Etxean aritu zen, eta Durango Azokan ere izango da bere musika entzungai. Aho-tseneako zuzeneko karpako hego eszenatokian ariko da abenduaren 8an, 19:40an hasita. Inunen *Berreginez* diskoko kante itxiko dute 2014ko Aho-tseneako zuzeneko zerrenda.

Ahotseneako azken zuzeneko Inun zornotzarrarena izango da

Datozen hilabeteetan ere zuzenekoekin jarraitu, eta bigarren diskorako kantak sortzeari ekiteko asmoa dauka zornotzarrak. Abenduaren 13an Bilboko Hegoetxea tabernan joko du; eta Gatikako Albokan, 19an. Izaki Gardenak taldearen aurretik joko du, bestalde, otsailaren 7an, Durango Plateruenean.

Aitor Gonzalezek irabazi du 2015eko ANBOTOren egutegiko argazki lehiaketa

Anbotoko Mariren koban egunsentian ateratako argazkiak eskuratu du aurten 500 euroko saria



Aitor González ANBOTOk erredakzioan saria jasotzen.

> EGUTEGIA Jone Guenetxea Mariren kobara gauez joan, argazkia atera, eta Aitor González Barinagarrementeria gernikarrak ANBOTOk 2015eko egutegiaren argazki lehiaketa irabazi du. Parte-hartzaile guztien moduan, Durangaldeko hamahiru herritako argazkiak

aurkeztu ditu lehiaketara. Horrela, Durangaldeko txokoak ezagutzeko aukera izan du. 2015eko egutegiak Durangoko Azokan daude salgai, Durangaldeko argitalpenen erakusmahaietan. Zelan atera zenuen lehiaketa irabazi duen argazkia?

Anbotoko Mariren kobako atartearen aterata dago. Gaua pasatze-
ra joan ginen bertara. Bitartean, argazkiak atera genituen. Koba kolore gorri argiztatzeko ideia ere izan nuen, baina azkenean aurkeztu dudana argazkia da gehien gustatu zaidana.

Lagun batez joan zinen, eta argazkian agertzen da.
Esan diot argazkiak lehiaketa irabazi duela, eta sariaren zati txikitxo bat berari dagokiola [barrez].

Zelan bururatu zitzaizun argazki hori ateratzea?
Beti gustatu izan zait gaueko argazkilaritza, eta ideia hori lehiaketa ezagutu aurretik nuen buruan. Lehenago ere egon izan naiz bertan, baina gauez igo nahi nuen. Han gaua pasatzeak bere gauza magikoa du.

Gernikarra izanda, zelan izan duzu argazki lehiaketa honen berri?
Bikotearen gurasoak Matienan bizi dira, eta bertan ANBOTO

aldizkaria irakurrita izan nuen lehiaketaren berri.

Lehiaketan parte hartzea esperientzia ona izan da?
Esperientzia oso polita izan da. Mañari eta Berriz inguruan ibiltzea asko gustatu zait. Berriz bertatik pasa izan naizelako ezagutu izan dut, baina nire buruari galdetzen nion: “Zer dago Berrizen?”, eta azkenean gauez ateratako argazki desberdinak egin gura izan nitut.

Beste argazki lehiaketa batzuetan parte hartu duzu?
Urteak dira argazki lehiaketetan parte hartzen dudala. Argazkizalea naiz, eta egunetik egunera hobetzerak behartzen zaitu. Gauza desberdinak egiten saiatu behar duzu. Era berean, beste parte-hartzaileengandik ere asko ikasten dut. Beraz, gustatzen zait lehiaketetan parte hartzea.

Zer argazkilaritza mota gustatzen zaizu?
Gehien gustatzen zaidana mendiko argazkilaritza da.

Egigurenen obra bat estreinatuko dute txistu emanaldian

> TXISTUA Joseba Derteano Andra Maria basilikak txistua erdigune duen musika kontzertua jasoko du larunbatean, 20:00etatik aurrera. Silboberri txistu elkarteak antolatutako emanaldian obra bi estreinatuko dituzte; horietako bat Jesus Egiguren konpositore durangarrarena da. Ez da obra berria; 1986an Durangoko Udalak antolatutako Lore Jokoetako lehen saria eskuratu zuen *Partita* obragaz, baina bihar estreinatuko dute. Hamar musikari eta hainbat instrumenturen elkarlana eskatzen duen obra da; txistua, flauta, kontrabaxua, klarinetea, tronpa eta perkusioa batuko ditu.

Estreinatuko duten bigarren obra *Hiru irudiak* deitzen da, eta Joxean Llorente txistulari eta konpositorearena da. Aitor Amilibia Musikeneko irakasleak gidatutako txistu taldeak eta Lander Bilbao perkusionistak jardungo dute partitura musikatzeko.

Azkenik, txistulari batek eta akordeoilari batek hainbat pieza eskainiko dituzte.

“ELORRIXOKO DENDAK ERAKUSGAI”

Abenduak 6
10:00-15:00
17:00-20:00

Elorrion.
Plazako Frontoian



ELUSKO JAURLARITZA
INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA
TURISMO SAILA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO

Ander Lipus | Antzezlea | Markina, 1971

“Uste dut garrantzitsua dela bizitza eta antzerkia bereiztea, bestela, jota geundেকে!”

Joseba Sarrionandiaren testuekin eta Gose taldearen musikagaz osatutako *Gosariak* disko berezian parte hartu du Ander Lipusek

> AKUILUA Markel Onaindia *Gosariak* lan multidiziplinarrak ondu dute Joseba Sarrionandia idazleak, Gose taldeak, Iñigo Arregi eta Juan Luis Goikolea margolariek, eta Ander Lipus aktoreak. Azokan, kultur transmisioaren eta antzerkiaren inguruko mahai inguruetan egongo da Berrizen bizi den aktorea.

Ander, zer gosaltzen duzu?

Orain dela gutxira arte ez nuen gosaltzeko ohitura handirik. Erretzailea nintzen, eta urtetan kafea eta zigarroa izan da nire gosaria. Ohiturak aldatu ditut, eta orain laranja zukua, kafesnea eta ogi txigortua marmeladagaz jaten ditut. Gosaria baino lehen, yoga ariketa batzuk egiten ditut.

Egunkariagaz, telebistagaz edo irratigaz gosaltzen duzu?
Ezer barik. Isiltasuna asko estimatzen dudan gauza bat da, bai etxean, bai kanpoan.

Zelan sortu zen 'Gosariak' lantzeko elkarlana?

Gose taldekoak ezagutu nituenetik, beti eduki dugu zerbait elkarrekin egiteko asmoa. Baina ni beti lanpetuta ibili naiz nire proiektuekin, eta ezin izan dugu gauzatu. Kolaboratu bai; adibidez, Miren Gaztañagak eta biok beste disko batean kanta-tu genuen. Oraingoan, *Katuen kantua* abestia nire emaztearen ahizparena da, eta nik gauza komiko batzuk egitea gura zuten. Sarrik poliziaren, gidariaren eta katuaren ahotsak irudikatzen zituen, eta nik sartu ditut. *Gosariak* diskoa atera ostean,

eszenan nigaz zerbait egin gura zuten, antzerkira eroatea nahi zuten. Teatroak eta musikak funtzionatzeko era oso desberdina dute. Gu proiektuekin urte biko epean ibiltzen gara dantzan, eta besteek lankidetza eskatzen didatenean, beharbada, ezin izaten dut. Orain, datorren azaroan egingo dudana obra prestatzen nabil. Azkenean, sare batean gaude. Proiektua pentsatu, idatzi eta saldu egin behar da.

**Aipatu duzun obra horretaz
zerbait aurreratzerik bai?**

Jon Gerediagak idatzi duen *Etxeokak* lana prestatzen nabiltu. Afrikan bategaz maitementzen den neska bat da, eta etxera ekartzea zein gaitza bilakatzen den kontatzen du. Hori euskal ikuspegitik ikusita. Zer suposatzen duen beltz bat ekartzeak, nortasun kontua...

Baina ez zabiltza horretan bakarrik, ezta?

Senpereko talde bategaz *Hazparneko anderea* zuzendu dut, eta Lauka antzerki taldekoei kanpo begiradagaz laguntzen nabil. *Amodioaren ziega* estreinatuko dute laster. Aulestiko topaketak eta Leioako Kultur Maratila antolatzen ere banabil. Saltsa-maltsa askotan nabil.

Hainbat pertsonaiaren azalean ikusi zaitugu. Baduzu mugarik? Beti esperimentatu behar da?
Kostatzen den gauza bat da. Izan ere, 25 urte daroadaz antzerkian, eta pertsonaia asko egin ditut. Nire mailetan daude, baina beti dago gainditzeko ideia hori, zerbait ederra emateko gogo hori. Adibidez, *Etxeakoak* lanean

anaiaren arduratuaren pertsonaia da nirea, eta beste formula batez egin beharko dut lan. Asier Altunaren filmean ere anaiarena egin dut, baina zinemaren pertsonaia eraikitzea desberdina da.

**Eta Juan Junda eta gai-
nontzeko pertsonaia
horiek bizi propioa har-
tzen al dute?**

Ez, nahiko diskretua naiz. Antzerkiari ordu asko eskaini arren, uste dut oso garrantzitsua dela bizitzeta eta antzerkia bereiztea, bestela jota geundeki! Egunero jendea zuri begira dagoela pentsatzea psikotikoa litzateke. Batzuetan gertatzen da egiten zabiltzan obrako testu batzuk etortzea. *Hamlet* egitean, Urko Redondok azentu desberdin bat erabiltzen zuen, eta, azkenean, egunerokoan denok erabiltzen genuen.

Bizitzak eta antzerkiak erritmo desberdinak dituztelako, ezta?

Publikoaren aurrean kontzentrazioa behar duzu. Adibidez, azken urte bietan nahiko txarto pasatu dut eszenara irten aurretik. Urte honetan ez dut ezer egingo taula gainean, eta, beharbada, behar nuen atsedean hori. Azkenean, tentsio eta ardura handia da, gehienbat norberak bere buruari jartzen diona. Hori bai, oso esker oneko ofizioa da, gustatzen zaizuna egiten duzu.

‘Hamlet’ obran sorpresaren sekretua gordetzeko eskatu zenieten ikusleei. Funtzionatu zuen?

Bitxia da, baina bai. Uste genuen lauzpabost emanaldi egin,



eta zabaldu egingo zela. Eduki genituen gure debateak, baina *Hamlet* bat zela iragartzea erabaki genuen. Pena apur bat ematen dit pentsatzeak bigarren plano batean ez ote den geratu ukitzen duen gai soziala. Baina jendea sorpresagaz harrapatzea hautu bat izan zen. Batzuei asko gustatu zitzaizen, beste batzuei ez. Teatroa hori da, ezin dituzu guztiak %100ean pozik utzi. Gure teatroak beti du profil probokatzaile bat, autokritikoa, zerbait mugitzen duena, batzuetan iluna, desfasatzen dena... Artea egiten gabiltz!

Horrek gazteak erakar- tzeko balio du?

Hori da gure nahia. Obra informalagoak gazteei gehiago gustatzen zaizkie. Testu freskoak behar dira, eta ga-
koak bilatzen gabiltza. Adibidez, bitartekotza lanak egiten ditut elkarrekin, tailerrak ematen ditut... Markinako antzerki taldera astero joaten banaiz, eta motibazio bat sortzen badut, hamabost pertsonako talde horrek bere lagunak dakartza. Publiko bat erakartzea eta hezitzea da. Hegoaldean antzokiak gero eta beteago daude, baina Iparraldean aldrebes: hori kezagarria da. Senpereko ikastetxean bitartekotza lanak egiten nabil euskara irakasleagaz, eta antzerkigintza ematen diet hilean birritan. Teatroari bere dimentsioa eman behar genioke. Gizarte baten ispilu izan daiteke, sentimenduei buruz berba egiteko, euskara erabiltzeko...